

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

Udal aurrekontuetako
600.000 euro zertan
inbertitu herritarren artean
erabakitze prozesua
abian jarri du Udalak





◀ Anik Zubizarreta Arturo (EH Bildu), udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioa batzordeko burua, Claudia Valdivieso Ascui (EAJ), batzordeko kidea, eta Onintza Andres Aranzeta (teknikaria) 2026-2027 partaidetzazko aurrekontuen prozesua aurkezten

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 600.000 € zureak ere badirelako

> Udal Aurrekontuetako 600.000 euro zertan inbertitu herritarren artean erabakitzeko prozesua abian jarri du Udalak

> Aurreko bi edizioetan baino **100.000 euro** gehiago bideratu ditu udalak partaidetzazko aurrekontuetara

> Aurten hartuko dira erabakiak, eta hurrengo bi urteetan zehar (2026 eta 2027) gauzatuko dira proposamenak

Partaidetzazko Aurrekontuen prozesu berria, hirugarrena, jarri du abian Udalak, herritarrek aukera izan dezaten udal aurrekontuaren zati bat (600.000 euro) zertan inbertituko diren proposatu, bozkatu eta erabakitzeko. Azpimarratzekoa da, orain hasten den prozesu honetara aurreko bi edizioetan baino 100.000 euro gehiago bideratuko direla.

Aurten hartuko dira erabakiak (ikusi prozesuaren faseak ondoko taulan), eta hurrengo bi urteetan zehar (2026 eta 2027) gauzatuko dira herritarrek bozketa bidez aukeratutako inbertsio-proposamenak.

IZAERA LOTESLEA

Udalbatza osatzen duten bi talde politikoen (EH Bildu eta EAJ) adostasuna du prozesuak, eta izaera loteslea izango du; hau da, prozesuaren amaieran herritarrek hartzen dituzten erabakiak aurrera eramateko konpromisoa hartu du udalak. Beraz, udalak animatu egin nahi ditu herritarrek proposamenak aurkeztu eta parte hartzera. Prozesuaren inguruko edozein zalantza argitu edo laguntze behar duenak udaleko Partaidetza sailera jo dezake: partaidetza@onati.eus / 943 789 411 (126 luzapena) / 688 679 460.



Prozesuak izango dituen urrats edo faseak

PROPOSAMENAK EGITEKO BIDEAK (IRAILAK 8-28)

Irailaren 8an jarriko da martxan Partaidetzazko Aurrekontuak prozesuko lehen fasea, eta hilaren 28ra arteko epea egongo da proposamenak aurkezteko. Edonork egin ditzake nahi beste proposamen; ez dago adin mugarik ez bestelakorik. Proposamen bakoitzeko fitxa bat bete beharko da.

Bi bide daude dira horretarako:

► **Online:** udal webgunean (www.onati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak). Ondoko QR-ak eramango zaitu bertara.



► **Postontzietan:** udal eraikin publikoetan eta bestelako ohiko tokietan egongo diren kutxetan orria sartuz (Udaletxea-HAZ, Kultur Etxea, Kiroldegia, Gaztelekua, Gizarte Zerbitzuak, Pake Leku, Eltzia, etab.).

» *Edonork egin ditzake nahi beste proposamen (ez dago adin ez beste mugarik). Proposamen bakoitzeko fitxa bat bete behar da*

» *Bi bide daude proposamenak aurkezteko: online (udalaren webgunean) eta udal eraikin publikoetan ipiniko diren postontzietan*

INFORMATZEKO ETA PARTE HARTZEKO BIDEAK

► **Webgunea:** udal webgunearen bidez, formularioa beteta (www.onati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak).

► **Informazio puntuak:** Herriko hainbat puntutan informazioa eskuratzeko mahaiak jarriko dira proposamenak jasotzeko epealdian.

► **Aurretiazko hitzordua:** Proposamenak betetzen laguntza jaso nahi duenarentzat.

Prozesuari buruzko informazio eguneratua jasotzeko, lotu Telegram / Whatsapp kanalera, edo eman zure email helbidea: partaidetza@onati.eus helbidean. Informazio gehiago: **943 789 411** (126 luz.) / **688 679 460**.

PROPOSAMENAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Udalaren eskumenekoa izan behar du.
- Bi urtetan exekutatzeko modukoa izatea eta egiturazko gastu nabarmenik ez ekartzea.
- Interes orokorrekoa izatea eta onura publikoa ekartzea.
- Bideragarritasun teknikoa eta juridikoa gainditzea.
- Gastua 225.000 €-koa baino handiagoa ez izatea.
- Aurretik planifikatuta ez egotea edo dagoeneko exekuzioan ez egotea.
- Partaidetza prozesu baten emaitza ez ezabatzea.
- Baztertu egingo dira orokorrekiak diren proposamenak eta propositiboak ez direnak.
- Ezingo da proposatu proiektua abiatzea baldintzatuko duen enpresa, pertsona edo baliabide zehatzik.



ANIK ZUBIZARRETA
Partaidetza eta
Garapen Komunitarioa
batzordeko burua

Aurkeztzen dugun hau, partaidetzazko Aurrekontuen hirugarren edizioa da. Lehenengoa 2018an izan zen, hurrengoa 2022an (pandemia tarteko atzeratu egin zen). Ibilbide honetan zehar egonkortzen joan da, eta uste dugu nahikoa kontsolidatuta dagoen prozesu eta eredu bat dela, sendoa.

Orokorrean oso harrera ona duen ekimena da partaidetzazko aurrekontuena. Jendeak interesa du eta komentatzen dute badutela buruan proposamen bat edo beste egiteko.

Aurten, gainera, aldaketa esanguratsu bat izango dute. Orain arte 500.000€ bideratu izan dira, eta oraingoan 600.000€ bideratzea erabaki dugu, prozesua are sendoagoa izateko.

2018ko lehenengo hartatik hona partaidetzazko aurrekontuetatik eratorrita gauzatu ditugun (edota gauzatzen ari garen) esku-hartzeak herritarren bizi kalitatearen aldeko izan dira. Aurreko edizioetan jasotako ekarpen asko interesgarriak izan dira, eta uste dugu oraingo prozesuan ere halakoak izango direla. Eta zentzu horretan oso eskertuta gaude. Batzuek gainera, hasierako eskaeraren haritik, esku-hartze handiago eta integralagoak ekarri dituzte, herriko plazan orain egiten ari garena, adibidez.

Lehen aipatu dut prozesu ezaguna dela herritar askorentzat. Hala ere, badugu erronka bat, herritar gehiagorengana iristea, alegia. Agian badaukate batzuek prozesuaren berri, eta besteren batzuek, beharbada, proposamen posible bat dute buruan, baina ez dira heltzen berau idatztera, arrazoi batengatik edo bestegatik. Hemendik aprobetxatzen dut esateko, udaleko Partaidetza saila beti prest egongo dela laguntzeko, eta norbaitek edozelako zalantzarik badu prozesu honen inguruan, edo proposamenen inguruan laguntza behar badu, bertara jo baino ez dauka.

Besterik gabe, aprobetxatu nahi dut herritarrak parte-hartzera animatzeko; ziur gauza politikak irteten direla. •



Oñatiko
Pertsona
Nagusien
Mahaiko
kideetako
batzuk. San
Juan kaleko
'Txipistin'
taldearen
lokalean
elkartzen dira
hamabostean
behin,
astelehen
goizetan
(10:30-12:00).
Hurrengo
bilera **irailaren
8an** izango da.

OÑATIKO PERTSONA NAGUSIEN MAHAIA

"Jende gehiago behar dugu,
denon artean herri hobia egiten
ahalegintzeko"

> Udalak animatu egin nahi ditu herritarrek
Pertsona Nagusien Mahaian parte hartzera.

> Oñatiko herria pertsona nagusien begiradatik
aztertu, eta antzematen diren **beharrizanak eta
hobekuntza proposamenak** udalari helarazteko
asmoz sortutako taldea da.

> **Taldea irekia** da; edozein herritarrek parte har
dezake. Ez dago ezertan aditua izan beharrik.

Udako oporraldiaren ostean,
Oñatiko Pertsona Nagusien
Mahaia lanera bueltatzeko prest
dago. **Irailaren 8an**, astelehena,
egingo du ikasturte berriko le-
hen bilera, goizeko 10:30etatik
12:00etara, San Juan kaleko 5
zenbakidun lokalean.

Orain dela bi urte eratu zen
Oñatiko Pertsona Nagusien
Mahaia, Udalak bultzatuta. Hel-
burua argia zen: adineko herri-
tarrak ordezkaturik egongo ziren
foro bat sortzea, kolektibo horren
begiradatik herria nola dagoen
aztertzea, eta balizko gabezia



Pertsona Nagusien Mahaia
Nagusien Mahaia
bileren bateko irudia

eta beharrianak identifikatzea, ahal den neurrian konponbidea emateko. Ez da ahaztu behar, Oñatin 60 urtetik gorako 3.000 pertsona bizi direla egun, eta portzentaia horrek gora egiten jarraituko duela, gizarte zahartuz doan neurrian, eta proportzio berean haziko direla gizarte sektore honen beharrianak ere.

Udalak 50 bat herritar elkarrizketatu zituen 2022an, adineko pertsonen egoera aztertu eta era honetako foro edo mahai ireki eta parte-hartzaile bat sortzeko beharrik ikusten ote zuten baloratzeko. Gehiengoak begi onez ikusi zuenez, 2023ko urtarrilean jarri zen abian Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaia.

Hilean behin elkartzen hasi ziren, baina, gaur egun, hamabostean behin egiten dituzte bilerak, astelehen goizetan (10:30-12:00), Udalak San Juan kaleko 5ean daukan lokalean. Pertsona nagusientzako programak diseinatu eta garatzen aditua den Bizipoz kooperatibako bi teknikariek dinamizatzen dituzte bilerak, eta udaleko Ongizate saileko gizarte langile batek ere parte hartzen du bertan, udalarekiko bitartekari lanak eginez.

SAN MARTIN EGOITZAKO BOLUNTARIO TALDEA

Bi urteko ibilbidean gai ezberdinen inguruan (zaintza, bakardadea, etxebizitza, garraioa, irisgarritasuna...), hausnarketa egin dute Nagusien Mahaian, eta hainbat egitasmo eta eki-

> PERTSONA NAGUSIEN MAHAIA

» ***Pertsona nagusien bizimodua hobetzeko proposamenak egiten ditugu, gero Udalari helarazteko***

» ***Zenbat eta jende gehiago egon taldean, orduan eta ideia gehiago. Beraz, animatu nahi ditugu herritarrek Nagusien Mahaian parte hartzera***

» ***Nagusien Mahaian parte hartzeko ez dago ezertan aditua izan beharrik. Denok ditugu bi begi, eta denok eman dezakegu gure iritzia, askatasun osoz***

» ***Besteak beste, San Martin egoitzako egoiliarrei konpainia egiteko boluntario taldea eratu da Nagusien Mahaiaaren ekimenez. Egoitzako arduradunekin koordinatuta lan egiten du eta talde irekia da***

men konkretu ere jarri dituzte martxan.

Aipagarriena, zalantza barik, San Martin egoitzako boluntario taldea sortu izana da. Urtarrilean egin zen deialdia, eta 16 lagunek taldea osatu da, egoiliarrei konpainia egiteko edo paseoak ematen laguntzeko, egoitzako

(Hurrengo orrian jarraitzen du)

Pertsona Nagusien Mahaia abian jarritako proiektuak

Hona hemen Nagusien Mahaia orain arte abian jarri eta antolatu dituen ekintzetako batzuk:

- Boluntario taldea San Martin egoitzan. Egoiliarrei konpainia egin, paseoak eman harreman sare berriak sortu, eta egoitzak antolatzen dituen ekitaldietan laguntza logistikoa eskaintzea dira, besteak beste, talde honen eginkizunak. Egoiliarren komunitate-bizitza aberastea, azken batean. Egoitzako arduradunekin koordinatuta jarduten dute.

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko ibilaldiak herrian zehar, eta identifikatutako oztopo arkitektonikoen txostena egin, udalari helarazteko.

- Hitzaldiak gai ezberdinen inguruan: tele-asistentzia zerbitzua, azken borondateen dokumentua, gerneru inkontinentzia...

- Belaunaldi arteko hartu-emanak sustatzeko topaketak gazteekin

- Oñatiko zaintza sektorea, edota nahi ez den bakardadeari buruzko azterketa eta gogoeta...

PERTSONA NAGUSIEN MAHAIA
hamabostean behin biltzen da, astelehenetan (10:30-12:00) San Juan kaleko 5 zenbakian

arduradunekin koordinatuta beti ere.

IRISGARRITASUNA HOBETZEKO IBILALDIAK

Mugikortasun edo irisgarritasun mailan herrian dauden oztopo arkitektonikoak identifikatzea da Nagusien Mahaiak abian jarri duen beste ekimen interesgarri bat. Horretarako ibilaldiak egiten dituzte herriko auzo ezberdinetan, eta bidean aurkitzen dituzten oztopoak identifikatzen dituzte, eta horiekin txosten bat osatzen dute, argazki eta guzti, udaleko Hirigintza sailera helarazteko.

Hitzaldiak ere antolatu ditu Nagusien Mahaiak, bereziki adineko pertsonen interesekoak diren gai eta zerbitzu ezberdinen inguruan: gernu inkontinentzia, tele-asistentzia zerbitzua, azken borondateen dokumentua...

Belaunaldien arteko hartu-emanak sustatzeko egitasmo bat ere badute esku artean; iaz egin zuten saiakera bat, Eskola Kirola eta POZ zerbitzuarekin elkarlanean antzinako jolasen inguruan, eta aurten ere badute horretan sakontzeko asmoa.

Nagusien Mahaiaren bilera batzuetan udaleko sail ezberdinetako (Hirigintza, Ongizatea...) zinegotziek ere parte hartu dute, mahaiak egindako proposamen edo eskaera jakin baten inguruko informazio zuzena emateko eta gai ezberdinen inguruko azalpenak emateko. Zaintza arloa ondo ezagutzen duten pertsonak ere gonbidatu izan dituzte bileretara, sektorearen errealitatea eta, bereziki, zaintza lanetan diharduten migratzaileen egoera eta lan baldintzak ezagutzeko helburuarekin.



"Zenbat eta jende gehiago, orduan eta aberatsagoa"

Pertsona Nagusien Mahaiko kideek animatu egin nahi dituzte herritarrak foroan parte hartzera. "Azken batean pertsona nagusian beharrianak aztertu eta lantzen ditugu, udalak kontuan har ditzan eta, denon artean, herri hobea egiten laguntzeko".

Taldea irekia da, eta edozein herritarrek parte har dezake, bere burua edo talderen bat ordezkatzuz. "Denok ditugu bi begi eta bi belarri, eta denok gara gai gure iritzia emateko eta gure ekarpenak egiteko. Ez dago ezertan aditua izan beharrik taldean parte hartzeko. Zenbat eta jende gehiago elkartu, ideia gehiago aterako dira, eta aberatsagoa izango da Mahaia". Parte hartu nahi duten herritarrek udaleko Gizarte Zerbitzuetan (Bidebarrieta, 12) eman behar dute izena.

ETORKIZUNERA BEGIRA

Udako etenaren ostean, irailaren 8an hasiko da lanean berriz ere Pertsona Nagusien Mahaia, eta aurreratu digute hainbat proiektu dituztela mahai gainean.

Goian esan dugu San Martin egoitzan eratu den boluntarioen taldea oso ondo funtzionatzen ari dela, baina mahaiko kideak jakitun dira herri mailan ere badela nahi gabeko bakardadean bizi diren eta behar ezberdinak dituzten herritarrak, eta, beraz, boluntario taldearen eginkizunak egokitu edo beste talderen bat

Pertsona Nagusien Mahaian parte hartu nahi duten herritarrek udaleko Gizarte Zerbitzuetan (Bidebarrieta, 12) eman behar dute izena



LIERNI ALTUBE
udaleko Ongizate
batzordeko burua



"Mahaiaren ekarpenak oso baliagarriak izango dira Udalarentzat, eta aintzat hartuko ditugu"

Udaletik oso aberasgarria ikusten dugu herrian Nagusien Mahaia egotea. Udalak esku artean dituen erronka nagusietako batzuk *Zaintza* eta *Bakardadea* dira, nagusiei oso loturik dauden erronkak eta, beraz, Mahaiaren ekarpenak oso baliagarriak izango dira guretzat. Horregatik, erabaki dugu udaleko gizarte langile bat egotea Nagusien Mahaiaren bileretan, elkarren arteko harremana erraztu eta bideratzeko.

Hasierak ez dira errazak izaten, baina, oso har, oso positiboko baloratzen dugu Nagusien Mahaiak orain arte egindako bidea. Eskerrak eman nahi dizkiet parte hartu duten herritar guztiei eta animatu egin nahi ditut herriko nagusiak bertan parte hartzera. Udalak aintzat hartuko ditu Mahaiaren ekarpenak, denon artean nagusientzako herri hobe bat egiten ahalegintzeko.

sortzeko saiakera egin nahi dute.

Bestalde, herrian ibilbideak egiten jarraituko dute, oztopo arkitektonikoak identifikatzen, eta zaintza eta bakardadea bezalako gaiak aztertzen jarraituko dute, erakundeekin elkarlanean, irtenbideak proposatzeko. ■



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS



“BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR”

- 300 Mb-eko ZUNTZA
- + 2 MUGIKOR-LINEA
- + 40 GB PARTEKATZEKO

29,90€/HIL
BEZa barne

Eta dohainik **eraman aire**
bidezko TRISTAR frijigailua edo
baliza bat edozein mugikor +
zuntza tarifa kontratatuz.



PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



*Zetoz LIZKER INFORMATIKA dandara, kontratatu zuntza + mugikor-linea bat eta aukeratu bi opari hauen artean: aire bidezko frijigailua edo DGTk homologatutako baliza (2026ko urtarrietik aurrera derrigorrezkoa).

MASMOVIL
AURREZTU, ETA KITO



Agustiñoetako organoak 100 URTE

*Xabier Ugarte Aiastui**

Pasa den abuztuaren 28an, San Agustin egunez, 100 bete zituen laterandarren Jesusen Bihotza elizako organoak. Kontzertu bat izan zen 1925eko ostiral hartan, Jose Mari Olaizola zumaiarrak (Abandoko San Bizente elizako organista) Victor Lasa altsasuarrak (Zaragozako La Seo katedraleko organista) Arantzasuko Arrue, Garmendia eta Arregi frantziskotarrek eta Fernando Urkia laterandarrak emana. Bertan ziren agustiñoen beste ordezkari batzuk ere, adibidez Gelasio Goenaga eta Esteban Telleria. Baina ekitaldiko protagonista nagusia Argentinatik etorritako Mikaela Ugalde Iraegi oñatiarra izan zen, Dolaetxe baserrian 1848an jaioa. Protagonista nagusia diogu, bera izan zelako organoaren dohaintza egin zuena. Organoa Azpeitiko Puignau-Olaciregui etxeak egin zuen 17.500 pezetaren truke. Eskuko bi teklatu ditu, 56 nota dituztenak, eta 30 nota dituen pedala.



▲ MIKAELA UGALDEREN OPARIA

Organoaren aldamenean dagoen plakan irakur daiteke Agustinoen elizako organoa Dolaetxe baserriko alaba zen Mikaela Ugalde Iraegiren oparia izan zela, eta 1925eko abuztuaren 28an inauguratu zela.

Argentinara joan zen Mikaela eta han Eustakio Aristizabal Erran nafarra ezagutu zuen, 1850ean Lizarran jaioa. Buenos Aires probintziako Mar Chiquita barrutian dagoen Vivotatá herrixkara joan zen XIX. mende bukaera aldera. Toki horretako lehen bizilagunetakoa izan zen Aristizabal, Euskal Herritik joandako beste migratzaile batzuekin batera. Lehenengo Jose Abasolo izeneko bazkide batekin 'La Bilbaína' biltegia sortu



zuen, baina ez zuten elkarrekin denbora asko iraun. Lursail handi bat erosi zuen ondoren eta denbora gutxian 'La Micaela' izeneko etxalde oparoa bihurtu zen, lehen garai haietan 4.000 behi, 23. 000 ardi eta zenbait errota eta etxebizitza zituena, besteak beste. Izena emaztearen omenez jarri zion tokiari, 1892an ezkondu baizen Mikaela Ugalde oñatiarrarekin. Diru asko egin zuten garai hartan.

Handik hamalau urtera hil zen Lizarrakoa, 1906an, eta bere alargunak senarraren omenez eliza bat jasotzea erabaki zuen. 1911ko urtarrilean ireki zen Vivotatá herriko lehen eliza katoliko hura. Alboan parroki-etxea eta eskola bat ere eraiki ziren. Ia hasieratik daude laterandarren arrastoak eliza hartan. Luis Malleak idatzita utzi zuenez, 1919an Bonifacio Arrazola oñatiarra zen bertako kapilaua eta inguruetako herrietara ere (Maipú, Coronel Vidal, Mar Del Plata, Dolores...) joaten zen mezak ematera, organoa jotzera eta tenore gisa abastera. Dena Sulky izeneko zalgurdian. Mikaela Ugaldere lehengusu txikia zen Bonifacio Arrazola.

Gure protagonista hildakoan (ez daukagu urtea zehazterik) agustiñoek hartu zuten hura guztia dohaintzan: eliza, kapilauaren etxea, eskolatxoa eta 211 hektarea lur. Beste laterendar batzuk ere izan ziren bertan handik aurrera, adibidez Miguel Arregi, Modesto Larrañaga eta Felix Cuesta. Lurrak saldu zituzten lehenengo (Luis Mallearen ustez oso

> Dolaetxe baserriko alaba zen Mikaela Ugaldere oparitu zien organoa Agustiñoek

negozio txarra egin zuten), baina elizaren jarduera ere jaisten hasi zen, batez ere Vivotatá herrian bertan beste eliza bat eraiki zelako. Aipatutako Felix Cuesta izan zen 1962an betirako itxi zuena. Handik aurrera, poliki-poliki eraikina hondatzen joan zen, batez ere sarri izaten ziren

uholdeen eraginez. Utzia eta erortzeko zorian dago orain zoritxarrez eraikin eder hura.

Emakume honen eta berak jasotako elizaren historia ezagututa, ez da zaila asmatzea zergatik erabaki zuen agustiñoek organo bat oparitzea, aurten 100 urte bete dituen organoa. •



Goian, Mikaela Ugalde oñatiarrak, alargundu ostean, bere senarra izan zenaren omenez Vivotatá herrian (Argentina) 1911n eraiki zuen eliza eta parroki-etxea.

Eskuman, Mikaela eta Eustakio Aristizabal Erran senar-emazteek jaso zuten etxaldeko sarrerako plaka.


Bertan irakur daitekeenez, 'Estancia La Micaela' izendatu zuten.



*In memoriam

Erreportaje hau Xabier Ugarte Aiastui zenak 2021 ean idatzitako ikerlan luzeago baten laburpen eta egokitzapena da, bere gaixotasunak lehenengo eta heriotzak ondoren ia-ia ahaztuta utzi dutena. Bidezko ikusi dugu testua bere izenarekin sinatzea. Sekulako lana egin zuen Xabierrek Agustiñoen historia ezagutarazi eta berreskuratzen, batez ere anaidiko musikariena. Honako hau bere eginahal oparoaren beste fruitu bat da.

Iñaki Galdos Irazabal



Xabier Ugarte zenak egindako ikerlanaren azala

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

MIREN UGARTE
Fisioterapia

Etkez-etxeko tratamendua:

- Neuroerreabilitazioa
- Heldu nagusiak
- Traumatologia

Arreta pertsonalizatua eta eguneroko beharretara egokitua
T. 609 589 843 • miren.fisioterapia@gmail.com

Matrikula aldia zabalik

UDAL EUSKALTEGIAN

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko. Aurten ere eskaintza oparoa prestatu dute: Euskalduntze eta Alfabetatze mailak, titulu ofizialak (HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak) lortzeko ikastaroak, aurrez aurrekoak, etorkinei zuzendutako ikastaroak, Oñatiko euskara lantzekoak, ostalaritza eta zaintza arlokoentzat... Maila eta behar guztietara egokitutako aukera zabala. Izena ematen duten ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da. Joan den ikasturteko zenbait ikasleren testigantzak bildu ditugu.

16-18 urteko gazteentzako C1 mailako kurtsoa egongo da aurten ere



TOMMASO GALATI

"Euskara ez ezik, euskal kultura maitatzen ikasten da euskaltegian"

Italiarra jatorriz, orain dela bost urte hasi zen euskara ikasten euskaltegian, eta oso gustura ari dela aitortu digu. Aurten A2 mailako taldean aritu da eta bere asmoa da B1 edo B2 maila eskuratzea. "Oñati euskaraz bizi den herria da, eta bertan bizi naizenez, gustatuko litzaidake euskaraz modu naturalean berba egiteko gai izatera iristea. Gainera, azkenaldian Santa Ana antzokiko soinu teknikari lanean ere badihardut eta, beraz, garrantzitsua da euskara maila txukun bat edukitzea. Oso gustura ari naiz euskaltegian. Irakasleek asko animatzen zaituzte, eta hemengo hizkuntza nahiz kultura maitatzen irakasten dizute".



DENISA PIRES

"C1 titulua lortzea zen nire helburua, baina Batxi-ko notak hobetzen ere lagundu dit"

Portugaldarrak ditu gurasoak eta bera Suitzan jaio zen, baina Oñatin bizi izan da txikitatik, eskolan euskaraz ikasi du, eta orain C1 titulua (lehengo EGA) lortzea du helburu. 16-18 urteko gazteentzat osatutako taldean aritu da euskaltegian, eta pozik dago. "Batuetan gogorra egiten da, eskolaz kanpoko aktibitate asko ditugulako, baina, egia esan, oso giro polita izan dugu taldean, eta horrek asko laguntzen du. Helburua C1 titulua ateratzea da, etorkizunera begira, baina, Batxilergoko notak hobetzen ere lagundu dit, nire euskara maila hobetu dudalako".



LORENA RICO

"Bezeroek euskaraz eskatzen dutenean 'mesedez, erderaz' esatea pena da"

Argentinarra sortzez, hamazazpi urte daramatza argue artean, eta iaz erabaki zuen euskaltegian izena ematea, lankide batekin batera. "Denda bat daukat, eta pena ematen dit bezeroek euskaraz berba egiten didaten aldiro, 'mesedez, erderaz' esan beharrak. Zenbakiak eta beste esaldiren bat banekizkien, seme-alabek irakatsita, baina nire helburua da, gutxienez, euskaraz berba egiten entzuten dudanean, zertaz ari diren ulertzea. Lanean ari garenontzat eta familia daukagunontzat ez da erraza euskaltegira etortzea, baina irakasleek asko animatzen gaituzte, eta gustura nabil, poliki-poliki".

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheak • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



ANTONIO ALONSO

"Egunerokoan euskaraz aritzeko gai izatea da helbura"

Lanean erretiroa hartzearekin batera hasi zen Antonio euskaltegia joaten. Dagoeneko hiru ikasturte osatu ditu eta oso gustura dagoela aitortu digu. "Bai, beste hizkuntza batzuk ikasten ere ibilia naiz, eta euskaltegiako metodologia oso-oso egokia iruditzen zait: mintzamina, entzumena, idazmena, gramatika... Dena lantzen da, teoria eta praktika uztartuz, eta, bagoaz, poliki-poliki, aurrera". Titulu beharrik ez dauka Antoniok, baina B2 maila lortzea gustatuko litzaioke. "Azken batean, aurrera egiten ari ote zaren erakusten dute tituluek". Pake Leku elkarteak mintzapraktika taldean ere parte hartzen du, astean birritan.



IZAR AZURMENDI

"Euskaldun zaharrentzat ere lagungarria da euskaltegia"

Irakasle-ikasketak egiten ari da Izar; titulua eskuratu ahal izateko C1 maila egiaztatu behar duenez, helburu horrekin jo zuen udal euskaltegia iazko irailean. Balorazio oso positiboa egin digu. "Batzuetan gogorra egiten da, bestela ere arratsaldeak nahiko beteak ditugulako, baina pozik nago. Magisteritza eskolako lagunekin etorri naiz eta giro ona izan dugu gelan. Nik animatu nahi nuke jendea euskaltegia etortzera. Euskaldun zahar garenok ere akatsak egiten ditugu, oharkabea, eta hemen konturatzen zara horretaz. Beraz, titulua ateratzeko edo euskara hobetzeko, merezi du euskaltegiak".



ANDER DACOSTA

"Unibertsitateko titulua lortzeko behar dut C1-a"

Magisteritzako bigarren kurtsoa amaitu berri du, eta gradua amaitzerako C1 maila egiaztatu beharko duenez, titulua eskuratzeko asmoz jo zuen euskaltegia iazko irailean. Hasieran astun samarra egin omen zitzaion, baina, gerora oso gustura egon da. "Bai, gelako kide batzuek aurrez elkar ezagutzen genuen eta harreman polita egin dugu taldean; giro ona izan dugu gure artean, eta horrek asko laguntzen du". Beraz, Anderrek animatu egin nahi du jendea euskaltegia etortzera. "Bai, alde batetik oso garrantzitsua delako C1 titulua edukitzea eta, gainera, oso talde-giro ona egoten delako euskara lantzeko".

EUSKARA IKASTARO BEREZIAK

Zaintzaileentzako



- **Hartzaileak:** Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Oñatiko zaintzaileak
- **Helburua:** Ahozko oinarritzko komunikazioa lantzea. Zaintza-lanak euskaraz egin ahal izateko oinarritzko hizkuntza-baliabideak ezagutzea
- **Iraupena:** 60 orduko ikastaroa, urritik urtarrilera, 4:30 ordu astean
- **Ordutegia:** Eskaerari egokitua
- **Matrikula:** Doan. Udalak finantzatzutako ikastaroa. (Baldintza: Oñatin adinekoak zaintzen lan egitea)
- **Izen-ematea:** irailaren 1etik 19ra

Ostalari eta merkatarietarako



- **Hartzaileak:** Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Oñatiko taberna, ostatu eta merkataritza arloko langileak
- **Helburua:** Ahozko oinarritzko komunikazioa landuko da: bezeroak artatzeko erabiltzen diren hitz eta esaldi ohikoenak
- **Iraupena:** 60 orduko ikastaroa, urritik urtarrilera, 4:30 ordu astean
- **Ordutegia:** Eskaerari egokitua
- **Matrikula:** Doan. Udalak finantzatzutako ikastaroa. (Baldintza: Oñatin ostalaritzako establezimendu batean lan egitea)
- **Izen-ematea:** irailaren 1etik 19ra

EUSKARA

ERRITMO BIZIAN



MATRIKULA ZABALIK

irailaren 1etik 19ra

Oñatiko Udal Euskaltegian (Eltzia eraikina)
Bulego ordutegia: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 18:30
943 782 496 / euskaltegia@onati.eus

Ohiko beka sistemaz gain, iraupen luzeko langabetuentzat dohainik (informatu euskaltegian). Matrikulatzen diren ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da.

AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN
Eskaerari egokitutako erritmo eta ordutegia

MATRICULA ABIERTA

Del 1 al 19 de septiembre

En el Euskaltegi Municipal de Oñati (Edificio Eltzia)
Horario de oficina: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 18:30
943 782 496 / euskaltegia@onati.eus

Además del sistema habitual de becas, parados de larga duración, gratis. Infórmate en el euskaltegi. Entre los matriculados se sorteará una matrícula.

EXAMENES OFICIALES EN MAYO Y SEPTIEMBRE
Ritmos y horarios adecuados a la demanda



Debagoieneko ARGITZEN prozesua ezagutarazi eta zalantzak argitzeko aurkezpen saioa Oñatin

Irailaren 15ean izango da, udaletxeko pleno aretoan, 18:00etan

Debagoiengan abiatu den ARGITZEN prozesu deliberatiboa herritarrei gerturatu eta izan ditzaketen zalantzak argitzeko asmoz, datozen egunetan aurkezpenak egingo dira herriz herri, eskualde osoan.

Izan ere, datozen egunetan zozketaz aukeratutako Debagoieneko hainbat herritarrek euren buzoieta gutunazal hori batean gonbidapen bat jasoko dute. Energia trantsizioaren norabidea adosteko urratsak emango dituen ARGITZEN prozesuko Herritarren Batzarrean parte hartzeko gonbidapena izango da. Eskualdeko 50 herritarri eskatuko zaie energia kontsumoa murriztu eta energia berriztagarriak garatzeko gomendio-sorta bat osatzea.

Guztiaren xehetasunak jasotzeko eta zalantzak argitzeko, herriz herri egingo diren aurkezpenetan prozesuaren sustatzaileak diren Mandatu Organoko herri bakoitzeko eragileek hartuko dute parte. Oñatikoa irailaren 15ean izango da, udaletxean, 18:00etan hasita.

'ARGITZEN' PROZESUA

Debagoiengan energia trantsizioaren inguruan eman beharreko urratsak adostu eta gauzatzeko deliberazio prozesua da ARGITZEN. Aldaketa hori eskualdeko eragile publiko, pribatu, komunitario eta herritarrekin landuko da eta horretarako bi organo eratuko dira: **Mandatu organoa** (prozesu honen sustatzaile eta erabakigune nagusia da, eta sektore publiko, pribatu eta komunitarioko 18 eragilek osatzen dute, tartean Oñatiko Udalak), eta **Herritarren Batzarra** (Debagoieneko 50 herritar aukeratuko dira zozketa bidez, energia eredia norantz aldatu behar den elkarrekin gogoeta egiteko. Laguntza teknika jasoko dute eta gomendio sorta bat osatuko dute Mandatu Organoaren esku uzteko).



Urketariaren iturria berritzen ari dira

Maiatzaren 1a plazan dagoen Urketariaren iturria (*Fuente de la Aguadora*) eraberritzea erabaki du Udalak. Garai hartako alkate Carlos Altzaaren enkarguz, Casto de Zavala arkitekto ospetsuak 1880an Oñatiko udalerrirako diseinatutako zortzi iturri-monumentuetako bat da hau, Santa Marina, Etxaluze, Iturritxo, Kanpantxo, San Anton, Kirrinekoko kantoia eta Foruen plazakoarekin batera. Aker taberna aurrealdeko iturriak itxura klasikoko emakume urketari baten irudia dauka goiko aldean. Gogoratu behar da, garai batean berdura plaza egon zela inguru honetan. Eraberritze lanak Petra kooperatiba egiten ari da 16.238 (BEZ kanpo) euroko aurrekontuarekin.

Hilerriko zenbait hilobi egokitu beharko dira lurperatzeak egin ahal izateko

Udaleko lan-prebentzio batzordeak ebatzita, gorpuen hilobiratzeak egiten dituzten langileen segurtasuna bermatzeko asmoz, egokitzapenak egin beharko dira kanposantuko zenbait kapera eta panteoitan, lan-ikuskaritzak zehaztuak dituen baldintzak bete daitezken. Horiek egin arte, ez da gorpurik lurperatuko.

Oro har, hilerri zaharreko eta lehen handitzean egindako zatiari eragiten die neurriak. Zehazki, panteoiaren gainetik 2 x 0,9 m.-ko zabalgunea ez duten hilobien titularrek egin beharko dute obra. Hilerriko gune berrienak ez du egokitze beharrik. Erraustutako gorpuen kasuan ez legoke egokitzapenik egin beharrik eta posible litzateke panteoia erabiltzen jarraitzea.

Obra egin bitartean, Udalak aukera eskainiko du gorpua udal jabetzako nitxo batean sartzeko, zerga ordenantzan zehazturiko tasa ordainduta.

Zapatutako arropa eta ehunkien azoka, Errementari plazan egingo da

Plaza ondoko berdegunea eta jolasgunea berritzeko egiten ari diren lanak direla eta, larunbatetan bertan egin ohi den arropa eta ehunkien azoka Errementari plazan egingo da irailaren 13tik aurrera –irailaren 6koa Santa Marina plazan izango da–. Plazako lanak 7-8 hilabetez luzatuko dira. Fruta eta barazkien azoka ohiko tokian egingo da larunbatero.

Musikoterapiak isiltasunaren oztopoak apurtzen ditu

Musika Eskolak Musikoterapia saioak eskainiko ditu aurten ere

Pentsatu al duzu inoiz zein paper jokatzeko duen musikak zure bizitzan? Ba al dakizu zein den zure bizitzako soinu-biografia? Musikak eraman al zaitu inoiz zuretzat garrantzitsua izan den une edo leku batera?

Gizakiok musika erabili izan dugu bizitzako une askotan: hitzekin adierazi ezin genituen emozioak transmititzeko, sentimenduak adierazteko, oroitzapenak biziberritzeko edota beste egoera emozional batzuekin konektatzeko.

Schopenhauer filosofo eta musikariak zioen moduan, musika arte guztien artean berezia da, ez baitu alaitasuna, tristura, estutasuna, gozotasuna edo bakea modu zehatz batean adierazten. Aitzitik, emozio horiek guztiak beren esentzian islatzen ditu, osagarri edo azalpenik gabe.

Musikaren eta gizakiaren arteko harremana aspaldikoa da. Antzinako Egipton, esaterako, erliebe baxuetan ikus daitezke emakumeak txaloak jotzen (palmoteatzaileak), erritmo horien bidez erditze-prozesuei laguntzen zitelarik. Erdi Aroan, Italiako hegoaldeko zenbait tokitan, tarantelaren dantza erabiltzen zen tarantula baten ziztadak eragindako ustezko erotasuna sendatzeko.



Arantzazu Saiz, Jose de Azpiazu musika eskolako gela batean

Historiak erakutsi digu musikak gizakiarengan eragin sakona duela maila guztietan. Hain zuzen ere, 2019an, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) 3.000 ikerketa-artikulu baino gehiago aztertu ondoren ondorioztatu zuen herrialde guztiek bermatu beharko luketela musika eta arteak osasunerako dituzten onurak jasotzeko politika publikoak.

Musikoterapia, musika eta soinuaren erabilera terapeuti-

koa da, pertsonen osasun fisikoa, emozionala, psikologikoa eta soziala hobetzeko helburua duena. Musikoterapiak diziplina anitzeko ezagutza eskatzen du, eta musika profesional batek (musikoterapeuta kualifikatu batek) zuzentzen du beti. Beraz, musika terapeutikoa da, baldin eta modu metodikoan, sistematikoan eta ebidentzian oinarrituta erabiltzen bada.

▲
Arantzazu Saizek emango ditu **Musikoterapia saioak**. Pianoko goi mailako titulua edukitzeaz gain, Psikologian lizentziatua da eta **Musikoterapiako** hiru urteko masterra egina du. Beasaingo musika eskolan ere ematen ditu musikoterapia saioak



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40



AYESTARAN ARAKUNTZAK S.L.

Aita Lizarralde, 8-Behea / 943716454 / iayestaran.com
obra berria / eraberritzeak / etxebizitzaren eraberritzeak /
igogailuak / kota 'O' lanak /
fatxada eta teilatuak

PERTSONEN ARTEKO TOPAKETA ESANGURATSUAK ERRAZTEKO TRESNA

Pertsonen arteko topaketa esanguratsuak errazteko tresna gisa erabiltzen da **MUSIKOTERAPIA**. Topaketa hauei esker onurak jasaten ditu pazienteak. Hona hemen adibide batzuk, onura horiek ulertzeko.

Maria 82 urteko emakumea da. Mariarentzat oso zaila da bere oroimenera iristea eta bizi den ilunpe horretatik irtezea. Bere egunerokotasuna zaila da, eguneroko gertakariak eta gertaera berriak ahazten ditu, batzuetan denbora eta lekuak nahasten ditu. Esaldiak osatzeko zailtasunak ditu eta agindu edo azalpen sinpleak ere kostatzen zaio eta batzutan larritasun eta antsietatea sentitzen du.

Musikoterapiak Maria bere emozioekin eta oroimenekin konektatzea lagunduko dio, oroitzapenak berpiztuz eta "hemen eta orain"-era ekarriz, momentuaren presentzia areagotuz. Askotan, melodia txiki batekin, pertsonak oroimenaren bidai bat has dezakete. Eta abesteak ere orainaldia bizitzeko sarbidea errazten du. Musikoterapiaren bitartez, Mariarekin topaketa esanguratsua sortzeko aukera izaten dugu.

Iker 6 urteko mutikoa da, eta autismoa du. Ez du ahozko hizkuntza erabiltzen, eta zaila egiten zaio besteekin harremanetan jartzea. Ingurukoek erabiltzen dituzten komunikazio-kodeak ez ditu erraz

ulertzen, eta babes bila dabilenean, ez die pertsona helduei aurpegira begiratzen.

Musikoterapiak topaketa eta konexioa ahalbidetzen ditu, eta, horren bidez, Ikerrek besteekin elkarreraginean aritzeko gaitasunak garatzen ditu. Adibidez, musikaren erritmoaren bidez, Iker danborra jotzen hasten da musikoterapeutarekin batera. Pixkanaka, erritmoen bidezko "elkarrizketa" bat sortzen da bien artean. Topaketa musikal hauek lagungarriak dira Ikerrek harreman sozialak eraiki eta bere buruarengan konfiantza irabazteko. Musikaren bidez, beraz, espresatzeko eta konektatzeko bide bat aurkitzen du, hizkuntzaren mugarik gabe.

Ane 35 urteko irakaslea da eta laneko estresa pilatzen ari zaio. Lo egiteko zailtasunak ditu eta tentsio handia sentitzen du. Musikoterapiaren bidez, lasaitzen eta erregulatzen duten topaketak bultzatu ditzakegu, hala nola, musika lasaigarri baten bitartez, arnasketa teknikak bultzatuz, edo eta bere soinu-biografia erabiliz eta inprobisazioa teknikak erabiliz abestiak sortu.

Jon 58 urtekoa da eta iktus bat izan zuen. Hizketan zailtasunak ditu eta gorputzaren ezker aldean mugikortasun arazoak. Musikoterapiaren bidez, topaketa esanguratsuak bermatu ditzakegu erritmoarekin koordinatutako mugimendu sinpleak eginez — esaterako, musika-jostailu bat jotzea edo txaloak — eta hizkuntza estimulatzeko duen abestiekin lan eginez. Horrek motrizitate eta komunikazio gaitasunak berreskuratzen lagunduko dio.

Julen 15 urteko mutila da eta eskolan arazo sozialak ditu, lotsatia da eta bere burua gutxietsita sentitzen du. Besteengandik deskonektatu da, egoerak eragiten dion sufrimenduaz aldentzeko. Musikoterapiak adierazpen emozionala ahalbidetzen duten topaketak sustatzen ditu, batez ere, hitzen bitartez espresatzeko zaila den egoerentzat. Frogek diotenez, musikoterapia tresna oso egokia da min horrekin konektatzeko eta haren adierazpena errazteko. Kasu honetan, beraz, bere gustuko musika sortzeko aukera emango genioke, letren bidez bere emozioak adierazko, musikoterapeutarekin harreman segurua garatuz. Horrek bere buruarengan konfiantza irabazten lagunduko lioke.



Musikoterapia saioak, astean behin

Musikoterapia saioetan interesa duten herritarrek Jose de Azpiazu Musika Eskolara deitu behar dute (943 78 31 74), idazkaritza orduetan: astelehen, astearte eta ostiraletan, 16:30etatik 18:30etara, edo mezua idatzi idazkaritza@jaspiazumusikaeskola.eus helbidera. Aurreneko bi saioetan, matrikula egin aurretik, ikaslearen ebaluaketa egiten du Arantzazu Saiz irakasleak, dauzkan ezaugarri eta beharren arabera helburuak finkatzeko, eta, ondoren, ikaslea eta, beharrezkoa denean, familia ados baldin badago, lanean hasiko dira. Orduerdiko saioak izaten dira. Astean behin.





◀ 1999ko uztailaren inauguratu zen Oñatiko Anaitzeen monumentua eta plazatxo, Santa Ana antzokiaren aurrealdean.. Monumentuaren inguruan ikus daitezke Oñatirekin anaitutako herri eta hirietako armarrak

Fruituak ematen jarraitzen duen anaitzea

25 urte dira Argentinako Jose C. Paz eta Oñati anaitu zirela

Zehazki, uztailaren 15ean bete zen **Oñati** eta **Jose Clemente Paz** herrien arteko anaitzearen 25. urteurrena. Gogoratu, Oñatiko seme zen **Jose Vicente Altubek** sortu zuela, hasieran **Villa Altube** izenez bataiatu zuen herria, 1897an, eta 1913an **Jose C. Paz** izena hartu zuena, Nicolás Avellaneda Argentinako presidentearen aurkako iraultzan esku-hartze nabarmena izan zuen erreboltagararen omenez.

Argentinakoa ez da Oñatik daukan hiri anai bakarra. Aurretik, **Gleibat el Fula** (Sahara), **Zacatecas** (Mexiko) eta **Chateaubernard** (Frantzia) herriei anaituta zegoen, eta ondoren etorri ziren **Guadalajara** (Mexiko) eta **Asis** (Italia) herriekiko senidetzeak. Sei dira, beraz, arrazoi ezberdinak tarteko (historia, elkartasuna, erlijioa...) Oñatirekin anaitutako herri eta hiriak, Santa Anako Anaitzeen plazatxoan ikus

daitekeen moduan.

Arrazoi ezberdinak egon ziren anaitze horien atzean: batzuk **historikoak** (Oñatiko semeek sortutako hiriak dira Zacatecas eta Guadalajara), **erlijiosoak** (Arantzazuko frantziskotarrek Asis-ekin duten lotura), **elkartasunekoak** (saharar herriaren eskubideen aldarrikapena) eta **kulturalak** (Chateaubernard), Europar Batasunak sustatuta, Europako herrien arteko elkar ezagutza sendotzeko helburuarekin.

Garai hartan Oñatiko **Anaitze Batzordea** ere eratu zen, udaletxean ordezkari zuten alderdi politikoek eta herri mailako kultura, kirola eta gizarte mailako eragile ezberdinetako ordezkari osatua. 1998 eta 2012 artean jardun zuen batzordeak, eta makina bat ekintza burutu ziren haren babesean: ikasle eta herritarren arteko elkartrukeak, kultur eta kirol ekitaldiak, liburu argitalpenak, he-

rriko enpresentzako merkatu berriak arakatzeko bisitak...

ANAITZE EMANKORRENA

Zalantza barik, Argentinako **Jose C. Paz** herriarekikoa izan da Oñatiko anaitzeen artean emankorrena. Argitu behar da, gainera, Argentinatik iritsi zela anaitzeko proposamena. Lehen esan dugun moduan, oñatiar batek, Zubillagako Zugasti baserriko semea zen Jose Vicente Altubek sortu zuen **Villa Altube** herria –gerora Jose C. Paz–, eta haren ondorengoek, aitona naren jaiotetxea ezagutzeko gogoz, 1994an Oñatira egindako bisita bati esker hasi zen bi herrien arteko harremana loratzen. Handik hiru urtera, 1997an, Jose C. Paz hiriaren mendeurrenako ekitaldien harira, Oñatiko ordezkari zuten bat Argentinara joan zen, eta orduantxe jarri zen mahai gainean bi herriak anaitzeko aukera.

Bisita hark zirrara eragin

zuen Oñatiko delegazioko ki-deen artean, Jose C. Paz-ek zituen gabeziak eta, bereziki, haur askoren bizi-baldintza eskasak ikusita. Horregatik, hurrengo urtean Oñatiko udalak 500.000 pezetako diru atal berezia onartu zuen Jose C. Paz-eko haurrei laguntzeko. Hurrengo hiru ekitaldietan ere beste hainbesteko laguntza bidali zuen Udalak.

ELKARTASUN PROIEKTUA

2001ean, Oñatiko Anaitze Batzordearen ekimenez eta herritar talde batek kudeatuta, Oñati eta Jose C. Paz arteko elkartasun proiektua jarri zen martxan. Aurrena, material sorta txiki bat bidali zen, eta, gerora, 35 kontainer bidali ziren –gehienak 12 metroko luzerakoak–, arropa, oinetako, jostailu, ordenagailu, botika eta askotariko materialez beteak. 2016an kontainerrak bidaltzeari utzi behar izan zioten Argentinako aduanan jartzen zizkieten etengabeko

> OÑATIREKIN ANAITUTAKO HERRIAK



Gleibat el Fula
SAHARA

1994ko ekainean anaitu ziren, Eusko Jauriaritzaren ekimenez, Oñati eta Tindouf-eko (Aljeria) kanpaleketako Gleibat el Fula herria, sahararren eskubideak aldarrikatzeko helburuarekin



Zacatecas
MEXIKO

1996ko urrian anaitu ziren Oñati eta Zacatecas, Mexikoko hiria sorreraren 450. urteurrenaren harira. Arrazoia historikoa zen, Cristobal de Oñate izan baitzen Zacatecas hiria sortzaileetako bat



Chateaubernard
FRANTZIA

1999ko uztailan anaitu ziren Oñati eta Frantziako Cognac eskualdeko herria. Europar Batasunak sustatuta burutu zen anaitze hau, herrien arteko elkar ezagutza eta batasuna sendotzeko asmoz



Jose C. Paz
ARGENTINA

2000. urteko uztailan burutu zen Oñati eta Argentinako herriaren arteko anaitzea. Arrazoia historikoa zen, Jose Vicente Altube Oñatiko semeak sortu baitzuen Jose C. Paz hiria.



Guadalajara
MEXIKO

2002ko apirilean gauzatu zen Oñati eta Mexikoko hiria arteko anaitze ekitaldia. Kasu honetan ere arrazoia historikoa zen, Oñatiko seme Cristobal de Oñatek sortu baitzuen Guadalajara hiria



Asis
ITALIA

2002ko abuztuan sinatu zen Oñati eta Italiako hiria arteko Adiskidetze Protokoloa –Asis-ek ez zuen anaitzerik egiten–, Arantzazuko frantziskotarren bosgarren mendeurrenoko ekitaldien harira

oztopoen ondorioz.

Anaitze Batzordearen babesean, Oñati eta Jose C. Paz arteko elkartasun programa hau abian jarri zuten herritarrek Hermansolonia GKEa eratu zuten 2009an, eta orduz geroztik elkarte honen bidez bideratu da laguntza guztia.

Oñatitik bidalitako laguntza Jose C. Paz hirira ez ezik, aldameneko San Miguel herrira eta Jujuy hirian nahiz Buenos Aires hiriburuan Agustinoek atenditzen zituzten komunitateetara ere iristen zen. Orotara, pertsona eta, bereziki, haur pobreekin lan egiten duten 40 zentrotara iritsi izan da Oñatiko laguntza, hango Toki Eder Euskal Etxea, San José Providente Fundazioa eta Luis Arregi laterandarraren bitartez, besteak beste.

Laguntza materialaz gain, 2003tik aurrera laguntza ekonomikoa ere bideratu izan da Argentinara, erakunde, enpresa eta herritar partikularren eskuzabaltasunari esker lortutako dirua, eta urtero, batz bestea, 40.000 euro bideratu izan dira. Horri esker hainbat proiektu jarri ahal izan dira martxan, hala



ANAITZE EKITALDIA

2000. urteko uztailaren 15ean burutu zen Oñati eta Jose C. Paz herrien arteko anaitzea. Udal ordezkariak gain, Toki Eder Euskal Etxea, José Altube museo historikoa eta Jose C. Paz-eko Koru Polifonikoa egon ziren Oñatin; 68 lagunek osatutako ordezkartza, guztira. Eusko Jauriaritzako ordezkari bat ere bertan izan zen. Beste hainbat ekitaldiren artean, Larrain Gain elkartearen egin zen anaitze bazkaria, eta ekitaldiak borobiltzeko, elizkizun berezia egin zen Zubillagan, Jose Vicente Altuberen Zugasti baserritik metro gutxira.

Datorren urtean beteko ditu 25 urte Oñati eta Jose C. Paz herrien arteko elkartasun proiektuak, oraindik bizirik dagoenak. Urte hauetan zehar, 570 tona material eta 900.000 euro inguru bideratu dira Oñatitik, elkartasun proiektu ezberdinak abian jartzeko.

nola: arotzeria eta soldadura eskola-tailerra; kaleko haurrak atenditzeko *Rayito de Luz* jantokia; gutxitu fisiko eta psikikoak integratzeko okindegi-tailerra; Jujuy probintziako Queta indioentzako ur hornidura sarea... Batzuk aipatzearen.

Datorren urtean beteko dira 25 urte Oñati eta Argentina arteko elkartasun proiektua hasi zela, eta zenbakiak aski esanguratsuak dira: guztira 570 tona material bidali dira eta 900.000 euro inguru inbertitu dira proiektu ezberdinetan. Gainera, inportantea da azpimarratzea, Oñatiko herri osoak parte hartu duela elkartasun ekimen zoragarri honetan.

ADISKIDETASUN HITZARMENAK

Aipatutako anaitzeek gain, Oñatik adiskidetasun hitzarmenak ditu oñatiar askoren sorterraren diren **Valtierra** (Nafarroa), **Macotera** (Salamanca) eta **Moralejarekin** (Extremadura), eta arrazoi historikoak tarteko, baita **San Luis Potosí** (Mexiko) eta **El Paso** edo **Santa Fe** (Estatu Batuak) hiriekin ere. •

AGINTALDI ERDIKO BALORAZIOA - EAJ/PNV



EAJren udal taldeko kideak

EH Bilduk oposizioari emandako paper hutsala eta funtsezko proiektuen atzerapena azpimarratu ditu EAJk

A gintaldi erdiko balorazioa Aegin du EAJren udal taldeak, eta komunikabideetara igorri duen prentsa-oharrean gobernu taldearen "gardentasun falta nabarmena" salatu dute jeltzaleek, eta aurrekontuen exekuzio maila makilatzeke, "datu desegokiak" erabiltzea ere egotzi dio EH Bilduri.

Gobernu taldeak oposizioarekin elkarlanean aritzeko eta adostasunak bilatzeko borondatea adierazi izan badu ere, benetako orduan ateak guztiz itxi dizkiola salatu du EAJk; "entzule papera besterik ez digu eman, eta proiektuak gauzatu ostean udal gobernuaren informazioa

jasotzearekin konformatu behar izan dugu".

Proiektuen balorazioa egiteko garaian, guztiek pisu bera balute bezala azaltzea kritikatu dio EAJk udal gobernuari, eta hainbat proiektu esanguratsu geldirik edo atzeraturik daudela azpimarratu du, hala nola: HAPOa (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra), etxebizitza eskaintzaren lanketa, irisgarritasuna Kale Zaharrean eta Otadui zuhaitzian, eta Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Berria, batzuk aipatzearen.

Horrez gain, aurreko agintaldiko egitasmoak, 2022ko Aurrekontu Parte-hartzaileetan onartu ziren bi proiektu kontuan hartu

» Bi urte hauetan parte-hartze proaktiboa izan dugu batzorde eta proiektu estrategiko guztietan, proposamen pluralak eginez eta oñatiar guztien onura bilatuz

ez izana egotzi diote jeltzaleek EH Bilduri: jolas-parkeetan 8-14 urteko gazteentzako elementuak jartzea (200.000€) eta plazako kioskoaren eta frontoiaren arteko gunea berritzea (121.000€).

EXEKUZIO MAILA DESEGOKIA

EH Bilduk aurrekontuetan aurreikusitako inbertsioen %90 eginda dagoela adierazi duen arren, datu hori desegokia dela uste du EAJk. Emakumeen Etxea aipatu du adibide gisa; "hasieran aurreikusitako zenbatekoa 600.000 eurokoa zen, baina, gehigarriekin, partida horretara zuzendutako kopurua 1.225.500 eurora igo da. Udal gobernuak jarraitu duen irizpidearekin, exekuzio maila %209koa litzateke, eta %90ekoa inbertsioen osotasunean. Aldiz, aurrekontuen likidazioan jarraitzen den irizpidearekin, inbertsioen gauzatze maila %50ekoa da".

Ildo horretan, udal gobernuaren balorazioari gardentasuna eta zintzotasuna falta zaiola dio EAJk; "ez dira exekuzio maila errealtaren adierazgarri".

Hala ere, udal gobernuaren jardunari dagokionez, bi aipamen positibo ere egin nahi izan ditu EAJk: batetik, Europar Batasuneko *Next Generation* funtsetatik lotutako dirulaguntzak jasotzeko egindako ahalegina; bestetik, bi proiektu zehatzetan –Emakumeen Etxea eta Energia merkaturatzailearen proiektua– oposizioarekin batera lantzeko ahalegina. "Tamalez", gehitu dute jeltzaleek, "bi ekimen horiek salbuespenak izan dira eta, oro har, entzule rola (eta batzuetan hori ere ez) soilik eman zaio oposizioari".

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

ETXiAN
Inmobiliaria
Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net

» Udal gobernuaren balorazioari gardentasuna eta zintzotasuna falta zaio. Aurrekontuen exekuzio maila makilatzeke datu desegokiak erabili ditu

» EH Bilduk oposizioarekin elkarlanean aritzeko eta adostasunak bilatzeko borondatea adierazi izan du, baina benetako orduan, entzule rola (eta batzuetan hori ere ez) eman zaio oposizioari



LANKIDETZARAKO PREST

EAJren udal taldeak azpimarra jarri du bi urte hauetan egin duen lanean, "batzorde eta proiektu estrategiko guztietan parte-hartze proaktiboa izanik, proposamen pluralak ekarri, eta oñatiar guztien onura bilatuz, hala nola: HA-POari egindako ekarpenak, edota garraio publikoa hobetzeko proposamenak, beste hainbaten artean".

EAJren udal taldeak lankidetzarako eskaintza zintzoa luzatu dio udal gobernuari. "Uste dugu lankidetzak eta adostasunak balioa ematen dutela, eta horiek funtsezkoak direla proiektuen gauzatzea errazteko eta, noski, herritarren egunerokotasuna hobetzeko. Hor bidelagun izango gara".

Eltzia taberna-kafetegiaren ustiaketa lizitaziora atera du Udalak

» Bi urterako kontratua izango da, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin

Eltzia eraikineko taberna-kafetegiaren ustiaketa errentan emateko lehiaketa ireki bidezko lizitazio prozesua abian jarri du Udalak. EAEko kontratazio atarian zein udalaren webgunean (www.oñati.eus/tramiteak/kontratatzalearen_profila) jasotzen dira taberna-kafetegiaren kudeaketa, administrazioa eta ustiaketarako derrigorrezko baldintzak, betebeharrak eta zehaztasunak, eta baita lehiaketara aurkeztu ahal izateko interesdunek bete beharreko eskakizunak ere. Nahi duenak dokumentazioa fisikoki ere eskuratu ahal izango du HAZ bulegoan. Edozein kasutan, ondorengo tramitazioa elektronikoki egin beharko da, EAEko kontratazio ataritik.

Irailaren 22a arteko epea izango dute interesdunek eskaintzak aurkezteko. Agiri administratiboen egokitasuna eta eskaintza tekniko eta ekonomikoa baloratuko ditu udalak, eta puntuazio altuena jasotzen duen proposamenari esleituko zaio zerbitzua. Bi



urterako kontratua izango da, bi urte gehiago luzatu ahal izango dena, urtez urte.

BISITA INSTALAZIORA

Lehiaketara aurkezteko interesa dutenek instalakuntzak bertatik bertara ikusteko aukera izango dute **irailaren 12an**, goizez (10:00) edo arratsaldez (15:00). Aurrez jakinarazi beharko da partaidetza@onati.eus helbidean, edo udaleko telefonora deituta: 943780411 /126 luzapena). Bi bide horiek baliatu ahal izango dira, era berean, zalantzak edo galderak argitzeko.

Lehiaketak iraun bitartean, beharrezko esku-hartzeak eta konponketa txiki batzuk egingo ditu udalak, taberna irekiko dutenei instalakuntzak baldintza onetan eskaintzeko.

Emakumeentzako JABETZE ESKOLA ikasturte berrirako prest

Udaleko Berdintasun sailak prest dauka Emakumeentzako Jabetze Eskolaren 2025-2026 ikasturterako eskaintza. Datozen egunetan banatuko da etxe guztietara egitarau osoa eta informazio zehatza jasotzen duen liburuxka. Orotara, 12 ikastaro, 6 solasaldi eta antzezlan bat programatu dira. Ikastaroak emakumeei zuzendutakoak dira, eta horietako batean ('Batxata salsa Kuir') deialdi berezia egiten zaie LGTBIQ+ pertsonen parte hartzeko. Solasaldiak herritar guztiei irekiak izango dira eta, esan bezala, antzezlan bat ere ('Casarse por papeles es verdadero amor' / Petit Cabaret konpainia) programatu da Kultura sailarekin elkarlanean.



ONNERA GROUP

FAGOR

asber

efficold

edenox

DOMUS

DANUBE

Primer

ARGAZKI LEHIAKETA 2026ko udal egutegirako irudiak aukeratzeko

Udaleko Euskara sailak 2026ko Udal Egutegirako argazki lehiaketa antolatu du, herritar guztiei irekia. Gaia **TOPONIMIA** izango da, leku-izenak: bideak, belardiak, basoak, kobak, iturriak, errekek, txabolak, tontorrak, haitzak...

Herri baten nortasunari eusteko, garrantzitsua da arbasoek lagatako ondarea jasotzea eta hedatzea. Ildo horretan, udalaren webguneko mapa interaktiboan udalerriko 2.855 leku-izen kontsulta daitezke. Udal egutegiaren bidez bizi berri bat eman nahi zaie, argazkia ondoan jarrita.

ARGAZKIAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Kalitate artistikoaz gain, toponimoaren berezitasuna eta elementuen aniztasuna hartuko dira kontuan. Ezinbestekoa da argazkiak Oñatiko udalerrian ateratakoak izatea. Argazki zaharrak edo berriak izan daitezke, zuri-beltzean nahiz koloretan. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Jasotako argazkien artean 12 aukeratu dira, eta horietako bakoitzaren egileak **80 euroko** saria jasoko du. Argazkiak aurkezteko azken eguna **urriaren 10a** izango da, **euskera@onati.eus** helbidera bidalita edo **HAZ bulegoan** aurkeztuta. Argazkiarekin batera, izen-abizenak, NANA, telefono zenbakia, argazkian agertzen den toponimoa (izena) eta deskribapen laburra adierazi behar da. Ikusi oinarriak www.onati.eus/agenda/udal-egutegiko-argazkiak-hautatzeko-lehiaketa helbidean, edo ondoko QRa eskaneatuta.



HERRI EGUNeko AZOKA Irailaren 10ean itxiko da izen-ematea

Urriaren 4an ospatuko den Herri Eguneako azoka antolatzen hasita dago Nekazarien Elkartea, udalaren laguntzarekin. Aurten ere, Foru Aldundiak agindutako hainbat baldintza bete beharko dira, eta izena emateko epea irailaren 10ean itxiko da.

- **GANADU LEHIAKETA.** Abere guztiak identifikatuta egon beharko dira, eta abere mota bakoitzari dagozkion osasun baldintzak bete beharko dira. Azokara eramateko abere guztien jatorri eta osasun gidak bete beharko dira.

- **GAZTA LEHIAKETA.** Herriko artzainek egindako gaztak aurkeztu ahal izango dira. Gutxienez, 800 gramokoak. Dietak: 35€ gazta bakoitzeko. Sariak: 200€, 150€ eta 100€.

- **FRUTA ETA BARAZKI ERAKUSKETA.** Bakoitzak 15 fruitu mota edo 15 barazki mota aurkeztu behar ditu, gutxienez. Dietak: 220€ eta 420€, aurkeztutako kopuruaren arabera. Produktuak saltzeko aukera egongo da.

- **LORE ETA LANDARA ERAKUSKETA.** Gutxienez 2 lote aurkeztu beharko dira; bat loreena (gutxienez 6 mota, eta mota bakoitzeko sortak gutxienez 6 lore), eta bestea landareena (gutxienez 10 mota ezberdin. Mota bakoitzeko landare bat nahikoa). Dietak: 300€.

TXANDAREN lehiaketan sarituak



Oñatiko gazteek herriko dendak eta saltzen dituzten produktuak ezagutzeko asmoz, *Scape Room* erako erronka-lehiaketa antolatu zuen TXANDAk 15-25 adin tarteko gazteei zuzenduta, sari mamitsuekin. Herriko 27 saltokitan gordeta zeuden pistak aurkitu eta pasaporte batean balioztatzea behar zituzten. Dena ongi egiten azkarrena Leire Odriozola izan zen eta berarentzat izan da sari nagusia, 500 euroko erosketa bonoa. Horrez gain, 200 euroko beste hamar erosketa bono zozkatu dituzte lehiaketan parte hartu eta pasaportea egoki osatu dutenen artean. Argazkian daude sarituak, Txandako kideekin batera.

'Euskal botere judiziala irudikatzen' Oñatiko LSNEk antolatutako ikastaroa

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak eta Bergarako Telesforo Monzon Euskal Herrigintza Laborategiak elkarlanean antolatuta, 'Euskal botere judiziala irudikatzen' ikastaroa egingo da irailaren 15ean Donostiako Miramar jauregian. Euskal Herrirako estatus juridiko berri posible batean botere judizialaren antolaketaren inguruan gogoeta egitea da helburua. Publiko orokorrari nahiz unibertsitateko ikasle eta irakasleei zuzenduta dago, eta 10 orduko balio akademikoa izango du. Izen-ematea zabalik dago. Informazioa: www.uik.eus/jarduera/euskal-botere-judiziala-irudikatzen.

5 lanpostu betetzeko deialdia

Oñatiko udaleko plantillakoak diren lau administrari eta HAZeko arduradun plaza bat jabetzan hornitzeko deialdi eta oinarri arautzaileak onartu ditu Udalak, hautaketa prozesuari hasiera emanez. Udalaren webgunean (www.onati.eus/tramiteak/lan-eskaintza-publikoa) kontsulta daitezke oinarriak. Urriaren 1era arteko epea dago izena emateko.



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Alostui Kortabarría
Irakaslea

Arantzazuko Ama, 3 behea

943 53 36 57

20560 OÑATI (Gipuzkoa)

4sgoiena@gmail.com

www.4sgoiena.com

Emakumion etxia eraikitzen



Etxearen irekiera prestatzera goaz ZATOZ!

E2026ko udaberrian irekiko ditu ateak Oñatiko Emakumion Etxiak. Irekiera prestatzeko lanei ekingo diegu ikasturte honetan.

Ikuspegi feministarekin herria eraldatzeko, emakumeok ahalduntzea sustatzeko, komunitatea sartzeko eta begirada interseksionaletik gure praktika eta politikak berrikusteko helburuarekin dator Etxia.

PARTE IZAN NAHI DUZU?

Etxiaren proiektuan sinisten baduzu eta Etxekide taldearen parte izan nahi baduzu, baduzu aukera.

Ez du ezagutza berezirik eskatzen; ez da beharrezkoa berdintasunean aditua izatea!

Aukera izango duzu:

- Etxearen antolaketa eta gobernantza sistema barrutik ezagutzeko.
- Feminismoaren eta interseksionalitatearen inguruan ikasteko
- Askotariko emakumez osatutako talde bateko parte izateko



Saltserak

- Etxiaren funtzionamenduan horizontaltasuna, gardentasuna eta parte hartzea betetzen laguntzeko.

- Zure jakintza edota ikuspuntuarekin prozesua aberasteko.

5 LAN TALDE MARTXAN

Ekintzak prestatzeko (azaroak 25, martxoak 8, etab.), **saltserak**.

Etxiaren helburu eta balioak betetzen laguntzeko, **talaikideak**.

Herriko eragile eta herritarrekin harremanak egiteko, **zubigileak**.

Etxeko egitaraua prestatzen, **programatzaileak**.


Elkarbizitza eta kohesioa lantzen, **jostunak**

EMAN IZENA:

Interesa izanez gero, jarri gurekin harremanetan eta azalduko dizugu zertan ari den talde bakoitza.



Talaikideak



Zubigileak



Programatzaileak



Jostunak

BILERA OROKORRA

Irailaren 17an, 18:00-20:00

Eltziako 3. solairuan

INFORMATUTA EGOTEKO HARPIDETU ZAITEZ

- Whatsappez: 688 78 52 47
- Emaillez: berdintasuna@onati.eus
- Instagram: @emakumionetxia

Informazio guztia: www.onati.eus/eu/emakumion-etxia



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraen izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna eta Gaztelekua (Arzerixan)

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Barra Libre

Santi Ugarte Maiztegi

Batzuk gogoratuko dira, beste batzuk, ahaztuta eta beste askok ezagutu ere ez dute egin, baina garai batean, tabernetara joaten zirenak taberna barruan egoten ziren. Horregatik, tabernen inguruan dauden araudiek bakarrik taberna barrukoa arautzen dute: gehiegizko dezibelioak, isolamendu akustikoa, gehienezko aforoa eta derrigorrezko ate bikoitza. Orduan, terrazak ere bazeuden, baina beti leku irekietan, plazetan, parkeetan eta horrelakoetan.

Gaur egun, taberna batzuetan bezero gehiago daude kalean taberna barruan baino. Batzuk aulkietan eserita, beste batzuk, lurrean, asko zutik. Kaleko bezeroentzako, barra libre. Beno, hori da libre ez duten bakarra. Ate biak irekita, barruko musika edo futbol partidua kalean ere entzuteko; aforoa, mugagabea; dezibelioak, nahi hainbeste. Gainera, taberna barruan pentsa ezinak direnak, baimenduta daude kalean. Kaleko bezeroek ekar dezakete beren musika, nahi duten momentuan eta nahi duten bolumenean, bafle poteoa, diskoteka mugikorrak... Baita kale erdian sua egin ere! Aldaketa honekin, tabernak txiringito bihurtu dira eta kaleak, aire libreko taberna. Atzeko Kalea jada ez da kalea, taberna handi bat, besterik ez. Egoera berri honetan tabernariak pozik, bezeroak ere, bizilagunak ordea, gogaituta. Betiko gupil zoroa, batzuk irabazteko beste batzuk galdu behar.

Marta Luxan antropologoaren iritziz: «Azken hamarkadetan kapitalismoak pribatizatu egin ditu eremuak eta kalea. Lehen kontsumoari lotuta ez zeuden aisialdirako lekuak terrazak dira orain; leku publikoa etengabe kontsumoari lotuta dago orain. Espazioa bizitzeko galera bat eragin du». Garbi dago kapitalismoaren adierazpen asko eta asko oso gustuko ditugula.

Utzikeria eta erantzunak

Andoni Gartzia, Oñatiko EAJko UBBren izenean

Uztaileko Kontzejupetik-en, EAJ udal taldeak herriko utzikeria salatu zuen. Hirigune historikoan eta oro har, herrian ohiko bilakatu diren pintada, pankarta eta abar.

EAJ udal taldearen salaketarekin batera, EH Bilduren erantzuna agertzen da. Erantzunean, lorategiak eta herria zaintzeko egin diren jarduerak zehazten dira. Bilduren arabera "datuak argiak dira". EAJtik herritik paseatzea eta oñatiar guztiok ikusten duguna ikustea gomendatzen diegu. Utzikeria eta inakzioa.

Adibide bezala, gogoratu 2024ko irailaren 26an Oñatiko EAJren egoitza den Batzokian egindako pintada oraindik ezabatzeko dagoela. Eta ez da kasu bakarra.

Amaitzeko, EH Bilduk EAJri erantzuteko aukera izan du. EAJtik Aukera bera nahi dugu. EAJko udal taldeak etorkizunean agintaldi erdiko balorazioa edo Bilduren Gobernuaren beste neurri batzuei ere erantzun ahal izatea gustatuko litzaiguke. EAJ udal taldea oñatiarren ordezkari ere bada. EAJren iritzia ere udal hedabideetan entzun behar da, bai Kontzejupetik, bai Udal irratiari bai Berbian.

» OHAR ETA DEIALDIAK «

1965eko KINTTADIA

1965ean jaiotako herritarrek bazkaria egingo dute **irailaren 20an**. Izena eman nahi duenak 80€-ko transferentzia egin behar du ES25 0081 4257 8600 0138 9043 (Sabadell banketxea) kontuan, izen-abizenak jarrita, **irailaren 13a** baino lehen. Bazkaria Etxe Aundin izango da.

Bidebarrietako jaixak

Ospatu berri diren Bidebarrietako jaietako zozketan sarituak atera diren zenbakiak hauek dira: 1. Saria: 0114 (2217); 2. Saria: 3560 (3321); 3. Saria: 0947 (1742). Parentesi artean ordezkari zenbakiak.

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> HAUR ETA GAZTERIAKO UDAL ZERBITZUEN UDA!<<

Aurtengo udan ere, eguraldia lagun, **Udaleku irekiak** eta **Arte Udalekuak** dastatzeko aukera izan dugu. Horretaz gain Ludoteka eta Gaztelekuko zerbitzuetan hainbat irteera gauzatu ditugu, eta guztiok –haur zein hezitzaileok– topera disfrutatzeko aukera izan dugu! Horren erakusle dira ondorengo argazkiak.

Beraz, mila esker urtero gure departamendutik eskainitako zerbitzuetan konfiatzen duzuen guztioi! Baita era batera edo bestera parte hartu eta lagundu diguzuenera! Elkarrekin primeran pasatu dugu eta!

Haur eta Gazteria saila



Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> ESKERRIK ASKO MANU! <<

Asko izan ziren Gaztelekua eta Ilatargi Astronomia Taldearen artean landutako proiektuak, beti ongi etorriak ziren zerua, izarrak, unibertsoa... arakatu eta ezagutzeko Manu Arregik luzatzen zizkigun elkarlan-proposamenak.

Hala ere, zalantzarik gabe, 2014ko ekainaren 14an **Agrupación Astronómica Vizcaina** eta **www.laotramitad.org** elkartekin batera burututako proiektua da gogoangarriena: **"Txantxiku 1 estratosferara misioa"**, non argazkian ageri den Txantxikua elioz betetako zunda baten aireratu genuen, estratosferara ailegatzeko asmoz.

Egun ederra izan zen hura, makina bat aurrean burutu behar izan genuen egun horretan dena gertu izateko, eta egunean bertan, Bilboko aireportuaren baimena jaso ondoren, goizeko 11:38:29etan Txantxikua askatu genuen: zitzu bizian egin zuen gora!

Proiektua diseinatu zutenek, Gaztelekuko hezitzaile eta gazte-koadrila eder batekin batera, erreskate taldea osatu genuen. Hauek ere zitzu bizian abiatu ziren Txantxikuak markatzen zituen GPSko koordinatuei jarraituz. Zundak, 35.000 metroko altuera gainditu ondoren, eztanda egin zuen, eta Txantxikuak behera egin zuen, lurreratu arte. Nafarroan dagoen Viana herritik kilometro batera hartu zuen lurra gure Txantxikuak, arratsaldeko 14:00:00ak aldera. Hortik gutxira berri, gure erreskate-taldeak bertan topatu zuen.

Esan bezala, eguna primerakoa izan zen, eta zundan jarritako aparatu guztiek primeran funtzionatu zuten: hegaldi osoaren grabazioa egin zen, argazki sekuentzialak 5 segundoro, temperatura, presioa, fondoko erradiazioa, izpi kosmikoak, lokalizazio-sistemak, ... Dena bikain.

Nahi izanez gero, <https://www.laotramitad.org/txantxiku-1/> webgunean informazio guztia ikusgai duzue, baita guztia laburbiltzen duen bideo ederra ere. Begiratu, merezi du eta. Esperientzia zoragarria izan zen proiektuan parte hartu zuten gazte guztientzat, baita gaian ez-jakinak ginen beste guztientzat ere, ... itzela! Manuk proposatzen zizkigun elkarlan guztiak bezala.

Orain, ordea, esperientzia polit horren protagonista nagusia izan zen Txantxikuari merezi duen atsedenerako tokitxoa aurkitu diogu Gaztelekuan, ikusten dugun bakoitzean oroitzapen eder horiek gogoraraziko dizkiguna. Eta berarekin batera, nola ez, proiektu guzti hauen arima izan zenari bihotzez eskerrak aitortzeko aprobetxatu nahi izan dugu: **Eskerrik asko, Manu!**

Oñatiko Gaztelekua



Erreskate taldeak Vianan (Nafarroa) jaso zuen txantxikua



**Txantxikuak
35.000
metroko
altuera gainditu
zuen eta
Viana herritik
kilometro
batera hartu
zuen lurra**



Ezkerrean, Manu Arregiren omenezko oroigarria jartzen Gaztelekuan. Goian, txantxikua aireratzeko unea

IGERIKETA eta FITNESS eskaintza Zubikoa kiroldegian 2025-2026

> **Irailaren 7ra** arteko epea dago izena emateko, Zubikoa kiroldegian bertan edo www.zubikoakiroldegia.oñati.eus



Kirol eskaintza zabala prestatu dute ikasturte berrirako Zubikoa kiroldegian.

FITNESS ekintzei dagokienez, hamazazpi jarduera ezberdinetan aritzeko aukera egongo da:

ASTEAN EGUN BAT: Body Balance, Body Pump, Cardio Kick Box, Hiit, Hypopresiboak, Luzaketak, Krossfit, Kore luzaketak eta TRX

ASTEAN 2 EGUN: Fit bike, Fit bike/Pump, Gimnasia egokitua, Gimnasia terapeutikoa, Senior gimnasia, Pilates, Pilates terapeutikoa eta Zunba

IGERIKETAko ekintzei dagokienez ere, eskaintza zabala da: Aquagym, Matro igeriketa, Ur fitness, Aquatraining eta Helduen igeriketa. Intentsitate ezberdineko taldeak eratuko dira: Hastapena (lasaia), Hobekuntza (ertaina) eta Jarraipena (ertain-gogorra).

ATE IREKIAK: Irailaren 10etik 12ra fitness ekintzetako ate irekiak egingo dira, eta urriaren 1etik 3ra igeriketakoak.

> UR EKINTZAK

AQUAGYM

- Astelehen-asteazkenak: 9:15-10:15 / 20:15-21:15
- Astearte-ostegunak: 8:15-9:15 / 13:15-14:15
- Ostiralak: 8:15-9:15 / 13:15-14:15

MATRO IGERIKETA

- Astelehen-asteazkenak: 12:15-13:15
- Ostiralak: 12:15-13:15

UR FITNESS

- Astelehen-asteazkenak: 13:15-14:00
- Astearte-ostegunak: 12:30-13:15

AQUATRaining

- Astearte-ostegunak: 7:30-8:15
- Ostiralak: 7:30-8:15

HELDUEN IGERIKETA

- Astelehen-asteazkenak: 10:15-11:15 / 19:15-20:15
- Astearte-ostegunak: 09:15-10:15 / 19:15-20:15
- Ostiralak: 09:15-10:15

OÑATI dabilen herria 2025-2026 ATE IREKIAK PUERTAS ABIERTAS FITNESS EKINTZAK						
IRAILA	ASTEAZKENA 10			OSTEGUNA 11		OSTIRALA 12
	Aldatz	Taupada	Ziburu	Aldatz	Ziburu	Aldatz
8:15	Luzaketak		Pilates hastapena		Pilates hastapena	
9:15	Gimnasia terapeutikoa		Hypopresiboak			Body pump 60+
10:15	Body pump 60+				Kore Luzaketak	Gimnasia terapeutikoa
11:15			Senior Gimnasia		Senior Gimnasia	
14:00		Fit bike / body pump		Fit bike / body pump		
15:00			Pilates hastapena		Pilates hastapena	
16:15				Body pump		
17:15	Hypopresiboak		Pilates hastapena	Pilates hastapena	Krossfit	
18:15	Luzaketak		TRX	Zunba	Body balance	
19:15	Kore Luzaketak	Fit bike			Cardio kick box	
20:15			Hiit	Luzaketak		

Izen-matea, **irailaren 5era arte**, Zubikoa kiroldegian

2025-2026 IKASTURTEKO TALDEKAKO FITNESS EKINTZAK
Ikasturte berrirako fitness jardueren eskaintza osoa (egutegia eta ordutegia) ezagutu gura izanez gero, eskaneatu ondorengo QRa.

IGERILEKUAK ITXITA Urteko garbiketara dela eta, igerilekuak eta sauna itxita egongo dira irailaren 22tik 26ra.



Etxegarai txapeldun Antiguon

Enara Gaminderekin bikote osatuz, Donostiako Antiguako 77. Pilota Txapelketa irabazi du Madalen Etxegarai. Abuztuaren 30ean jokatu zen finala, eta 22-20 hartu zuten mendean Zabaleta-Mendiburu bikotea.

● OÑABIKE
est. 95

ESKOLA KIROLEAN

izena emateko epea zabalik dago

Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza elkarteak 2025-2026 ikasturterako antolatu duen eskaintzan izena emateko aukera badago oraindik ere; elkarteak Eskola Kirola adinean dauden gaztetxoak, eta horien familiak, animatu nahi ditu Eskola Kirolean izena ematera.

Oñatiko Udalak eta ikastetxeek babestutako Eskola Kirolaren hastapen eredua ez da soilik kirola egiteko aukera. "Haur guztientzat esperientzia hezitzailea, inklusiboa eta osasungarria da", adierazi du Saioa Arkonada Perez kirol zinegotziak. Helburua da kalitatezko kirol hastapen eredua eskaintzea. Ez da errendimendua lehenesten, haurraren interesa eta ongizatea baizik. Haurrak erdigunean jarrita, Oñati aktiboago eta inklusiboago bat eraikitzea da xedea, nagusiki

ZER ESKAINTZEN DU OÑATIKO ESKOLA KIROLEKO EREDUAK?

- Kirol hastapen zentzuzkoa, progresiboa eta pedagogikoa. Kirol hastapena haur batek, adin eta gaitasun fisikoaren arabera, jarduera fisiko eta kirolaren oinarriko elementuak ezagutzen, esperimentatzen eta barneratzen hasten den prozesua da. Helburu nagusia ez da lehiaketa edo errendimendu altua lortzea, baizik eta oinarriko trebetasun motorrak garatzea, jarduerarekiko motibazioa eta zaletasuna piztea, eta jokoaren oinarriko arauak eta balioak barneratzea. Kirol hastapena garapen-prozesu progresibo baten lehen etapa da, eta jarduera fisikoaren bidez osasun-ohitura egokiak eta jarduera fisikoarekiko jarrera positiboa sustatzea bilatzen du.
- Haurraren garapen fisiko, emozional eta soziala ardatz duen eredua.
- Lehiakortasunetik haratago: dibertsioa, balioak eta ongizatea sustatzea.
- Ikastetxeen arteko elkarlana, Udala eta komunitatea osatzen duten bestelako entitateen laguntzarekin.
- Halaber, Oñatiko kirol klubek inplikazioa nabarmendu behar da, bereziki Aloña Mendi Kirol Elkarteara, kirol hastapena



2024-2025 ikasturteko Eskola Kiroleko azken jaiko irudiak



bultzatzen duten jarduerak eskainiz eta jardunaldi berezien bidez haurren parte-hartzea eta esperientzia aberasteko aukera emanez.

ZERGATIK PARTE HARTU?

- Parte-hartze unibertsala eta inklusiboa lehenesten duelako.
- Ohitura osasuntsuak sustatzen dituelako. Jarduera fisikoa ohiko bizitzan txertatzea funtsezkoa da osasun fisiko eta mentalerako. Eskola kirolak jarduera erregularra eta dibertigarria proposatzen du, ohitura osasuntsuak txikitik garatzeko.
- Eskola kirolak aukera ematen duelako Oñatin eskaintzen diren jarduera fisiko eta kirol gehienak praktikan ezagutzeko. Haurrek esperientzia zabalak bizitzen dituzte, eta horrek laguntzen du euren gustuak eta gaitasunak identifikatzen, etorkizunean kirol ibilbide egokiagoa hautatzeko.
- Balio Hezitzaileak dituelako: talde-lana, errespetua, esfortzua eta elkarbizitza bezalako balioak modu praktikoan lantzen dira. Eskola kirola ez da bakarrik jarduera fisikoa, baizik eta bizitzarako prestatzeko espazio bat.
- Inklusioa eta berdintasunaren begiradak dituelako: Eskola kirola guztiontzat da, maila fisiko, genero edo jatorria edozein delarik ere. Parte-hartzea sustatzen du, ez lehia, eta horrek aukera ematen du haur guztiek tokia izateko eta ongi sentitzeko.
- Gainera, herriko kirol eskaintza praktikan ezagutzeko aukera ematen du, Aloña Mendi Kluba bezalako elkarten bidez. Horri esker, haurrek euren gustu eta gaitasunen arabera etorkizuneko kirol ibilbideak aukeratzeko oinarriak finkatzen dituzte.

Elkarteak sustatzen dituen balioetan oinarrituta, ikasturte berrirako eskaintza berritua eta erakargarria landu dute eskola kirola batzordea osatzen duten guraso eta koordinatzaileek. Besteak beste, LH 3, 4, 5 eta, 6 mailetako neska-mutilak, mailaka, euren artean parte hartu eta lehiatuko dira. "Taldetxoak sortuko dituzte, izenak jarriko diote taldeari eta lehiatu egingo dira. Emaita bakarrik ez dugu kontuan hartuko, konpromisoa eta jarrera ere baloratuko dira, besteak beste", azaldu



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

ANE MERTZERIA



• Josteko zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak
Kale Barria, 54 OÑATI



SAIOA ARKONADA PEREZ
udaleko Kirol batzordeburua



» **Eskola Kirolaren hastapen ereduak ez da soilik kirola egiteko aukera. Haur guztien esperientzia hezitzaila, inklusiboa eta osasungarria da.**

» **Ez da errendimendua lehenesten, haurren interesa eta ongizatea baizik. Haurrak erdigunean jarrita, Oñati aktiboago eta inklusiboago bat eraikitzea da xedea.**

dute Eskola Kirola elkarteak osatzen duten gurasoek.

Hortaz, gaur egun Oñatin egin daitezkeen kirol ezberdinak ezagutu eta lehiatzeko aukera izango dute kirolari gaztetxoek.

Nabarmendu behar da Eskola Kirolak EKI eta EKE inklusiorako programak ere badituela.

ONLINE EMAN BEHAR DA IZENA

2025-2026 ikasturtean Eskola Kirolean parte hartzea nahi duenak Web orriaren bitartez eman behar du izena, www.webs3.omesa.es/ONATIESKIR/ atarian. Laguntza behar duenak koordinatzailearen bidez jasoko du laguntza onatieskolakirola@eskolakirola.eus helbidera idatzita. Eskola kirolean alta emateko webgunean erregistratu behar da (iaztik kontua sortuta dutenek ez dute beste kontu bat sortu behar).

KUOTA ORDAINTZEKO SALBUETSIAK

Eskola Kiroleko kuota ordaintzerakoan salbuetsi-gutxitu gelditzeko aukera dago. Informazio gehiago izateko, jarri harremanetan koordinatzailearekin: onatieskolakirola@eskolakirola.eus helbidean. ■



Maila bikaina eman dute Aloña Mendiko igerilariek Espainiako txapelketan

Hiru ordezkari izan ditu Aloña Mendiko igeriketa sailak udako Espainiako igeriketa txapelketetan, eta hori lorpen handia da gurea bezalako klub txiki batentzat. Are gehiago, kontuan hartzen bada, zenbait probatan final nagusian sartzetik ehunen edo zentesima gutxi batzuetara geratu direla. Gainera, ez da ahaztu behar, Espainiako txapelketak 50m.-ko igerilekuan jokatu ohi direla, eta hori ere *handicap* txiki bat da, 25 metrokora ohituta dauden igerilariarentzat.

Julen Pedregal izan zen lehiatzen aurrena, Cadizen, Alebin mailan. Bizkar erako 50, 100 eta 200 metroko probetan aritu zen eta, azken bietan, bereziki, bere distantzia gustukoenetan, bikain aritu zen, baina, tamalez, finalaren atari-atarian geratu zen bietan, 11. postuan, zentesima gutxi batzuegatik. Penatxo horrekin, baina pozik itzuli zen Julen, datorren urtean berriro saiatzeko gogoz, eta, zergatik ez, egunen batean estatu mailak podiumera igotzeko ilusioz, bere aita Unai 90. hamarkadan egin bezala.

Aimar Urzelai eta **Alixo Ojea** Ciudad Realen aritu ziren, Infantil mailan. Aimarrentzat bigarren aldiz zen Espainiako txapelketan –iaz Alebin mailakoan aritu zen– eta aurten Bizkar estiloko 50,100 eta 200ekoan lehiatu da. Distantzia motzengatik bazuen finalean sartzeko itxaropen txiki bat, baina, igerilekuaren neurria ez ezik, honek beste *handicap* bat ere bazuen, igerilekua estali gabea izanik, erreferentzia falta izaten delako, eta horrek zaildu egiten du lana. Gustura geratu da, hala ere, hurrengo urtean berriz saiatzeko gogoz.

Alixerentzat lehen esperientzia zen Espainiakoan. Tximeleta erako 200 metrokoan lehiatu zen. Azken orduan lortu zuen minima eta pozik geratu zen egindako lanarekin, eta, garrantzitsuena, lanean jarraitzeko gogoz eta ilusioz.

Iritzi berekoa zen **Josune Odriozola** entrenatzailea bera ere. "Aloña Mendi bezalako klub batentzat lorpen handia da hiru ordezkari edukitzea estatu mailako txapelketan, eta oso lan ona egin dute gainera". ■



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21


SIKAI DE ALTZARIAK • ALTZARI RIUSTIKOAK • NEURRIIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



Aitor Arregik eta
Jose Mari Goenagak
zuzendu dute
Maspalomas filma
(Moriarti)

Irailaren 26an iritsiko da zine aretoetara **Maspalomas**, Moriartitarren film berria

Donostiako Zinemaldiko sail ofizialean lehiatuko da, Urrezko Maskorraren bila

Gero eta gutxiago geratzen da Moriartitarren pelikula berria, *Maspalomas*, pantaila handian ikusteko, irailaren 26an iritsiko baita zine aretoetara. Aurretik, Donostiako Zinemaldiko sail ofizialean lehiatuko da, irailaren 19tik 27ra, eta Urrezko Maskorra irabazteko hautagaietako bat izango da.

Moriartitarrek lehenago ere izanak dira Zinemaldiko sail ofizialeko lehian, *Loreak*, *Handia* eta *La Trinchera infinita* filmekin, baina pozik, oso pozik jaso dute izendapen berri hau ere, Aitor Arregi zuzendari ofatarrak aitortu digunez. "Gero eta pelikula gehiago egiten dira, gero eta zailagoa da hor egotea eta, bai, ilusio handia egiten digu. Ez da ahaztu behar Donostiakoa dela munduan diren 'A' kategoriako lau zinemaldietako bat, Cannes, Berlin eta Veneziarekin batera. Txikiena lauretatik, baina lau

inportanteenetako bat munduan, eta hori oso lagungarria da pelikularentzat".

"Jendeak pentsatzen du", gaineratu du Arregik, "hemengoak garelako presentzia ziurtatuta daukagula Zinemaldian, baina hori ez da horrela; irabazi egin behar da, eta, egia esan, asko poztu gaitu eta behar bezala ospatu genuen albistea jakitean".

ISTORIOAREN INDARRA

Jose Mari Goenagaren jatorrizko gidoia oinarri, *Maspalomas*-ek Vicenteren istorioa kontatzen du. Adineko gizon homosexuala da Vicente, eta egoitza batean sartzen dutenean 'armairura itzultzea' erabakitzen du. Honela dio sinopsiak: "Bikotekidea utzi eta gero, *Maspalomas*-en (Kanaria Handia) darama gustuko bizitza Vicentek: bere egunerokoa eguzkitan etzanda, festan eta plazeraren bila pasatzen du.

SINOPSISIA

» Bikotekidea utzi eta gero, *Maspalomas*-en darama gustuko bizitza Vicentek, adineko gizon homosexualak. Baina osasun arazo bat tarteko, Donostiara itzuli behar du eta Vicentek erresidentzia batean bizi beharko du eta bere burua 'armairura itzuli' beharrean ikusiko du

Baina, osasun arazo bat tarteko, Donostiara itzuli behar izango du, eta duela urte batzuk abandonatu zuen alabarekin elkartuko da. Vicentek erresidentzia batean bizi beharko du, eta bere burua 'armairura itzuli' beharrean ikusiko du, ustez konpondua zuen bere izaeraren alde hori ezkutatuz. Egoera berri horretan Vicentek erabaki beharko du ea berradiskidetzeko garaiz ote dagoen, ingurukoekin... eta bere buruarekin".

Aktoreen lan bikaina eta beste alderdi batzuk gutxietsi gabe, istorioa da, batez ere, pelikula berezi egiten duena, Arregiren ustez. "Homosexualitatearen gaia lantzeaz gain, ezkutuan mantendu nahi den edota onartzen ez den egoera horrek sortzen duen tentsioa edo barne pultsioa ere aztertzea ere interesatzen zaigu".

Jose Ramon Soroiz aktoreak



Jose Ramon Soroizek du filmeko protagonista nagsiaren rola (Moriarti)

// Istorioa da, batez ere, pelikula hau berezi egiten duena

AITOR ARREGI GALDOS
Zine zuzendaria

jokatzen du Vicente protagonistaren rola, eta lan itzela egin omen du. Soroizekin batera, Nagore Aranburu, Kandido Uranga, Zorion Egileor eta Kepa Errastik osatzen dute aktore taldea.

35 MILIMETROTAN ETA EUSKARAZ

Gidoiarekin ez ezik, filmatzeko hautatutako formatuarekin ere arriskatu dute Moriartitarrek, 35 milimetrotako zeluloidean grabatzeko apustua egin baitute. "35 mm.-ko formatuak kalitate optiko handiagoa ematen dio: kolore sakonagoak, kontraste naturalagoak... beste bizitasun bat. Egia da, hori oso subjektiboa dela, eta geure artean ere izaten ditugula eztabaidak, ea nahikoa igarriko ote den, ea merezi ote duen ahalegin hori egiteak, ez delako bakarrik esfortzu ekonomikoa, teknikoki ere konplexuagoa baita. Nik, pertsonalki, pelikulari asko ematen diola uste dut; beste era batera janzten du istorioa, eta beste era batera sartzen zaizu begietatik".

Euskaraz grabatzearena, hautu naturala dela dio Arregik. "Gure filosofia da, istorioa kokatzen den mundu horretako eta istorioak eskatzen duenaren

araberako hizkuntzan grabatzea. Marco filmeko protagonista, esaterako, Bartzelonako pertsona bat da eta, beraz, ezin zitekeen gaztelaniaz eta katalaneraz baino izan. Eta *La trinchera infirmita* gaztelera-andaluzieraz grabatu genuen, han kokatzen zelako. Guri, euskaldunak izanik, pelikula denak ez, baina asko euskaraz kontatzea ateratzen zaigu barrutik, eta oraingoan ere horrela izan da. Ez da dena euskaraz izango, zati bat Maspalomas-en gertatzen delako, baina gehiena bai".

EMAITZAREKIN GUSTURA

Gustura dago Arregi emaitzarekin. "Jose Marik ideia aurkeztu zigunean garbi ikusi genuen gidoia garatu eta hauspotu behar genuela. Gero, prozesu luze baten ostean, batzuetan gertatzen da pelikula ez dela ateratzen norberak nahi duen moduan, baina, egia esan, oso gustura gaude emaitzarekin; uste dugu oso pelikula Moriartiren estilokoa dela, alderdi emozional eta psikologiko konkretu batekin, baina, aldi berean, desberdina izan daitekeena gauza askogatik. Ikusleek dute orain hitza".

Estreinaldira begira ere gogotsu daude Moriartitarrek. "Bai, urduritasuna baino gehiago, poztasuna sentitzen dut", aitortu digu Arregik; "pelikula bat egiteak daukan zailtasunarekin eta kostarekin, filma bera egin ahal izatea eta jendaurrean erakustea lorpen bat da. Ahalik eta lan profesionalena egiten saiatu gara, eta horrek lasaitasuna ematen dizu". •



'El combate por el control del clima' liburua argitaratu du Jose Antonio Azpiatzuk

Klimak gure arbasoen egunerokoan zuen eragina, eta harekin lotutako gertaerak, usadioak eta sineskeria zein konjuruak jaso ditu lan berrian

Eguraldia eta klimarekin lotutako gaiak guztion ahotan darabiltzagun garaiotan, atzera jo eta XVI. gizalditik aurrera klimak gure arbasoen egunerokoan zuen eragina eta horren inguruan zeuden sineskeria eta mitoak aztertu nahi izan ditu Jose Antonio Azpiatzu antropologo eta historialariak, Euskalerraren Adiskideen Elkartearen eskutik plazaratu duen **'El combate por el clima. Mitos y creencias populares vascas'** liburuan.

Ohi bezala, landa-azterketa egiteaz gain, Oñati, Valladolid eta Sevillako artxiboetan aurkitutako agiri eta dokumentuetan oinarritu da liburua osatzeko, eta, egiari zor, garbi dago historian zehar ere oso ohikoak izan direla katastrofe meteorologikoak gure inguruetan: eurite bortitzak, lehorte amaigabeak, gure arrantzaleen lana oztopatzen zuten izozte latzak...

Gertaera lazgarri horietako bat, adibidez, 1593ko San Mateo egunez gertaturiko 'DANA' izugarria izan zen, gau bakar batean izugarrizko sarraskia eragin zuena, hainbat presa, zubi, ola, errota eta bestelako azpiegitura hondatu eta suntsituz.

Argi dago gure arbasoak zerura begira bizi zirela, eguraldiaren araberakoa izaten baitziren uztak, eta erlijioak pisu handia izan zuen garaietan, hondamendi natural horiek Jainkoaren zigor gisa ulertzen ziren, eta haserre hori baretu zedin eskatzeko, prozesio, errogatiba eta konjurak egitera jotzen zen. Oñatin bertan ere, konjuru eta errogatibekin lotutako dokumentu ugari jaso ditu Azpiatzuk, udal artxiboko nahiz *Ritual Urrejolano* delakotik jasoak. •

Udal liburutegiko Irakurketa Klubak

> **Irailaren 19a** baino lehen eman behar da izena. **Bost** talde daude.



▲▶
Iazko kurtsoa helduen
irakurketa talde
ezberdinetako irudiak



▲
HAURREN IRAKURKETA KLUBA
LH5 eta LH6-ko haurrentzat zuzenduta dago.
Oharra: izena ematen dutenek, hala nahi izanez gero, 2 ikasturteko zikloa betetzeko aukera izango dute. Aurten, bigarren urtea izanik, iazko klubeko haurrek izango dute lehentasuna

"Literaturaz gozatzeko ez ezik, pentsamendu kritikoa, enpatia eta ahozko adierazpena lantzeko aukera paregabea eskaintzen dute irakurketa taldeek"

Udal Liburutegiak irakurzaletasuna bultzatzeko konpromisoari eutsiz, bost irakurle talde aktibo ditu gaur egun: lau helduentzat eta bat umeentzat. Taldeetako hiru euskaraz dira eta beste biak gaztelaniaz, eta adin ezberdinetara egokituta daude, irakurketaz gozatzeko aukera adin guztietako herritarrei eskainiz.

Irakurle taldeak hilean behin elkartzen dira liburutegian, aukeratutako liburu baten inguruan hausnartzeko eta esperientziak partekatzeke. Dinamika horrek irakurketaren ohitura sendotzen laguntzeaz gain, pentsamendu kritikoa, enpatia eta ahozko adierazpena lantzeko aukera paregabea eskaintzen du.

Liburutegiko arduradunaren hitzetan, "irakurle taldeak ez dira bakarrik literaturaz gozatzeko guneak; topaleku sozialak ere badira. Talde hauetan profil ezberdinetako pertsonak elkartzen gara, ideiak partekatzen ditugu eta ikuspegi berriak ezagutzen ditugu. Gure iritzia ematen ikasten dugu, baina, era berean, eta ez garrantzi gutxiagokoa, besteen iritzia entzuten eta errespetatzen ikasten dugu".

HAURREN IRAKURKETA TALDEA

Haurrei zuzendutako taldeak, gainera, irakurtzeko ohitura goiztiar bat sustatzen du, heziketa prozesuan lagungarri. Adin txikitatik irakurketarekin harreman estua duten haurrek irudimena, hizkuntza gaitasunak eta kontzentrazioa hobeto garatzen dituzte.

Bestalde, Haurren Irakurketa Klubak hau guztia bermatzen du:

1. Espazio ludikoa eskaini haur literaturaren bitartez.
2. Haurrek irakurle gisa duten esperientzia aberastu, derrigortasun sentimendua, asperdura eta axolagabekeria saihestuz.
3. Talde txikien gertuko jarraipena egin, estimulu-estrategiak erraztu eta komunikazio-giro egokia sortu.

Oñatiko Udal Liburutegia irakurketaren aldeko espazio bizi eta parte-hartzailea bihurtu da, eta irakurle talde hauek funtsezko zutabe dira norbanako zein komunitatearen garapenerako.

OHARRA

Euskarazko Komikien Irakurketa Taldea: 16 urtetik gorako gazteentzat irekita

Euskarazko komikien zaleentzako berria dugu: komiki irakurketa taldean 16 urtetik gorako pertsonak parte har dezakete eta parte hartzera animatu nahi ditugu komikizale gazte guztiak.

Aurten, talde hau indartzea da gure helburua, euskarazko irakurzaletasuna eta komikigintza sustatzeko. Irakurketa saioetan parte-hartzaileek euskarazko komikiak elkarrekin irakurri eta komentatzeko aukera izango dute, giro atsegina eta dinamikoan.

Azken urteotan, euskarazko komikien eskaintza gero eta zabalagoa da, eta horrek irakurle gehiagorengana iristeko bidea ematen du. Aukera paregabea da euskarazko kultur produkzioa ezagutzeko eta partekatzeke.

Ez galdu aukera! Animatu eta parte hartu! Euskarazko komikien mundua zain duzu!

Udal liburutegia

TERTULIXAN EUSKARAZ

- **Dinamizatzailea:**
ITZIAR UGARTE
- **Saioak:**
urriak 28, azaroak
18, urtarrilak
13, otsailak 3,
martxoak 3, apirilak
14 (**astearteak**)
- **Ordua:**
18:00-20:00

TERTULIXAN GAZTELERAZ

- **Dinamizatzailea:**
MÓNICA LEIVA
- **Saioak:**
urriak 21, azaroak
25, abenduak
16, otsailak 10,
martxoak 10, apirilak
28 (**astearteak**)
- **Ordua:**
18:00-20:00

KOMIKIA EUSKARAZ

- **Dinamizatzailea:**
IGOR LETURIA
- **Saioak:**
urriak 14, azaroak
4, abenduak 9
(**astearteak**)
- **Ordua:**
18:00-20:00

KOMIKIA GAZTELERAZ

- **Dinamizatzailea:**
KIKE INFAME
- **Saioak:**
urtarrilak 27,
otsailak 24,
martxoak 24
(**astearteak**)
- **Ordua:**
18:30-20:30

HAURREN IRAKURKETA KLUBA

- **Dinamizatzailea:**
PERU MAGDALENA
- **Saioak:**
urriak 27, azaroak
17, urtarrilak 19,
otsailak 9, apirilak
20 (**astelehenak**)
- **Ordua:**
17:00-18:15

Izen-ematea: irailak 1-19 : liburutegian bertan / 943 71 61 11 / 688 73 28 26 (whatsapp) / liburutegia@onati.eus

Udal liburutegiko **DAZKETA LANTEGIA**

> **Seigarren urteari ekingo dio, Joxemari Iturrালের গিডারিতapean.**

> **Irailaren 1etik 19ra eman behar da izena**



Udal Liburutegiko Idazketa Lantegia seigarren ikas-turteari ekiteko prest dago, eta aurreko bost ikasturteetan izandako arrakasta eta parte-hartzaileen interesa eta konpromisoa direla eta, liburutegiko programazioan finkatutako hitzordua bihurtu da.

Lantegia idazketa sortzailea sustatzeko helburuarekin sortu zen, eta denborarekin, bertaratzen direnek ezagutza teknikoak ez ezik, adierazpen pertsonalerako tresna indartsuak ere garatu dituzte.

Idaztearen onurak ugariak dira: autoezagutza eta emozioen kudeaketa lantzeko bide eraginkorra da, sormena pizten du eta irakurzaletasuna

sustatzen laguntzen du. Bestalde, hitzak aukeratzeak eta pentsamenduak antolatzeak pentsamendu kritikoa eta komunikazio gaitasunak hobetzen ditu.

Taldean idazteak ere baditu bere abantailak. Ideien trukaketa, iritzi desberdinen aberastasuna eta elkarrekin ikasteko aukera ematen du. Parte-hartzaile askok azpimarratu dute taldekideekin sortzen den konfiantza giroak inspirazioa areagotzen duela eta idazteko motibazioa bizirik mantentzen duela.

Lantegiaren arrakastaren oinarrietako bat zalantzarik gabe Joxemari Iturralde da. Iturralde esperientzia zabala du halako saioak zuzentzen. Bere

SAIOAK:
urriak 13, azaroak
3, azaroak
24, abenduak
15, urtarrilak
12, otsailak 2,
otsailak 23,
martxoak 16,
apirilak 13.

ORDUA:
18:00 - 20:00

IZEN-EMATEA:
Irailak 1 - 19
• Liburutegian
bertan
• 943 71 61 11
• 688 73 28 26
(whatsapp)
• liburutegia@
onati.eus

konpromiso irmoa eta parte-hartzaileekin duen arretazko jarrera funtsezkoak izan dira lantegiaren giro berezia sortzeko eta mantentzeko.

Liburutegiko arduradunek diotenez, lantegiak hasieratik izan du harrera bikaina eta parte-hartzaile kopurua egonkor mantendu da urtez urte. Seigarren ikasturte honetan ere, helburua bera da: idazteko grina piztea eta herritarrek beren ahotsa modu librean garatzeko espazio seguru eta goxoa eskaintzea.

Idaztea ez da bakarrik hitzak jartzea; norbere burua entzuteko eta adierazteko bidea da. Eta Oñatin, bide hori taldean eta maisu on batekin egiten da.

Idaztea gustuko duzu? Zure istorioak paperean ikusteko gogoak? Zatoz gure idazketa talde sortzailera!

Ez da beharrezkoa esperientziarik izatea; idazteko gogoak bakarrik! **Saioak astelehenetan dira eta euskaraz.** Informazio gehiago nahiz izanez gero, hurbildu liburutegira! •

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SOKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

JUANJE MARGOAK

627 818 247

Artea eta barne diseinua elkarrekin solasean

> Hilero, herriko artista batek artelan bat sortuko du Andrea Azkoaga interioristak proposatutako elementu batean oinarrituta



Irailerako proposatutako elementu dekoratiboa artelana sortzeko

Artea eta barne diseinua modu berritzaile eta esanguratsuan konektatzea bilatzen duen ekimena jarriko du abian Andrea Azkoaga interioristak, herriko hainbat artistarekin elkarlanean.

Proiektu hau artearen eta interiorismoaren arteko loturak esploratzeko gogo pertsonaletik sortu dela adierazi du Azkoagak. "Barrualdeen diseinuak espazioak edertzeaz gain, inspirazio artistikorako abiapuntua ere izan daitekeela erakutsi nahi dugu. Barne diseinuaren ekintzatik sor daitezkeen giza esperientziak artearen bidez islatzea. Gainera, tokiko artistekin harremanak sortu nahi ditugu eta diziplina desberdinak elkarrekin hitz egin dezaketela erakutsi".

Azken batean, barne diseinuak espazioak edertzeaz eta esperientziak sortzeaz gain, sentazio horien inspirazio artistikorako abiapuntua izatea bilatzen dute proiektuaren sustatzaileek.

HERRIKO ARTISTAK

Andrea Azkoaga Interiorista dendan egongo dira ikusgai artelanak. Oraingoz, herriko lau artista (**Xabier Mendizabal, Itziar Bastarrika, Ander Etxaniz eta June Baonza**) gonbidatu dituzte elementu dekoratibo horiek interpretatzera eta beren lanetan islatzera. "Bakoitzak bere ikuspegia, estiloa eta teknika nola ematen dituen ikustea da asmoa, eguneroko objektu bat adierazpen artistiko bihurtuz". Helburua, esan bezala, artearen eta barnealdearen diseinuaren arteko elkarrikeria sustatzea da; tokiko artistekin konexioak sortzea eta etorkizuneko kolaborazioak sortzea; interiorismoak sor dezakeen esperientzia hori artearen bidez islatzea. Espazio baten barruan eguneroko objektuak ikusteko modu berriak inspiratzea

Artelan bakoitza hilabete batez egongo da ikusgai eta salgai. Artistaren aurkezpena egingo da erakusketa hasieran. Oraingoz, irailean hasi eta abendura arte luzatuko da ekimena, baina asmoa da urtarrilean jarraipena ematea artista gehiagorekin.

'Gandiagaren Arantzazu' hitzaldia irailaren 27an

Ezagutu Arantzazu ekimenaren baitan 'Gandiagaren Arantzazu' hitzaldia emango du Paulo Agirrebaltzagetik irailaren 27an, Arantzazuko Asis Topagunean (10:30). Datorren urtean Gandiagaren heriotzaren 25. urteurrena beteko da, eta haren ibilbidea, sormen lana eta Arantzazuri eginiko ekarpena ezagutzera ematea da hitzaldiaren helburua.

Pake Lekuko udako argazki lehiaketa

Pake Leku jubilatuen elkarteak argazki lehiaketa antolatu du. Irailaren 15era arteko epea dago argazkiak bidaltzeko 681 642 400 whatsapp zenbakira. Irailaren 19tik 30era erakusketa eta bozketa egingo da Pake Lekun bertan, eta urriaren 10ean egingo da sari banaketa.

IKASTAROETARAKO IZEN-EMATEA

2025-2026 ikasturtean Pake Lekun antolatuko diren ikastaro-tailerretan izena emateko epea zabalik dago irailaren 22ra arte, Pake Lekuko tabernako buzoian.

Bilboko Opera Korua zuzenduko du Urzelai

Esteban Urzelai Eizagirre (Oñati, 1979) Bilboko Opera Koruko zuzendari titularra izango da 2025-2026 ikasturteetik aurrera, 1994tik karguan izan den Boris Dujin-en orde. Euskal Herrira itzuliko da, beraz, musika zuzendari oñatiarra, ia bost urte Madrilén eman ostean, Espainiako Koru Nazionalako zuzendariorde lanetan. Aurretik, Oviedoko Operako Koruan, Donostiako Orfeoian eta Euskal Herriko Gazte Abesbatzan aritu izan da Urzelai. Suhar koruko zuzendaria ere bada, 2018az geroztik

Hots Abesbatza Bulgariara

Aitor Biainek zuzentzen duen Hots abesbatzak Varna hiriko nazioarteko abesbatzen lehiaketan parte hartuko du irailaren 11tik 15era bitartean.

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua konpromezu gabe:

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripuak
- Ontziak
- Osasuna
- Etebizitza
- Aurrezkia
- Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behe

638 16 79 84

mikel.egana@spentes.catalanaoccidente.com

(*) Itten: arrastua, pistia

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (VI)

Karobixa



Atakia

Garibai auzoko Dolaretxeko (Dolatxe) karobixa zana. Arg.: (Roberto Altuna)

 ROBERTO ALTUNA

Eta eurak, etxeak, egitten euen dana, bape auzolan barik. Karobixa izan ezian. Orduan bai, premiñazkua zan norbaiten laguntasuna: edozeiñek daki, lurzulo biribil harriz jantziza izaten da karobixa, harri-labia. Burua estali barik eukitten dau, eta aurretik, behealdian, otia eta egurra sartzeko zulo txo bat, 'atakia' esaten xakona. Horretarako egun argi aukeratueta, kargaiten daue barru dana kare-harriz, ekarten daue otia eta egurra, burdikadak eta burdikadak, sartzen daue atakatik, sua emuten xaue, eta han egoten dira baserritarak gau eta egun karobi aurrian, sugarretan, kemiñetan, gorri-gorri, izerdittan, txorixua egoten dan moduan, koipia darixola, betik otia sartu eta sartu, sua makaldu eztedin eta euren lan dana galdu eztaixen. Arretaz egin bihar dana da kare-erretia, lan gogorra da, baiña baserritar gehixenak topaiten daue bigungarri on bat, han nunbaiten gordeta eukitten dauen ardaua zahatuan. Zahatua eskuetan dakoilla ikusiko ditzuzue, agua zabalik, gora begira sarritxo, euririk egingo ete dauen edo ez; itxuria danez, eurixa kaltegarri haundixa da karobirako. Askotan pentsau xat neri nekiak eta suak baiño zahatokuak bero gehixago emuten ez ete dosten. Karia ondo erreten bada, eztei haundixak egitten dittue, eta ezteixetan jan galanki, eran galankixago, eta gero mozk... Horra, horra, ba, esan, isilik euki bihar nebena.

Txomin Agirreren 'Garoa' nobelako zatixa, moldautakua.

Berbategixa:

károbi, -xa = calera, horno de cal

eztei, -xa = bataio, jaunartze, ezkontza...bat tarteko egitten zan jaixari esaten xakon. Hor izaten ziran otordua, lekaixuak... "Ezteixak aldekuen!". Trinidadiai be esaten xaten: "Ezteixak Araotzen!". Lanen bateri akaberia emundakuan be (erretillia, bidegintzaren bat, lantegiren bateri etsipena emundakuan...) ezteixa egitten zan (otordua, droga...).

- "Hor droga gogorra entzuten da".
- "Ezteixak: Realak irabazi dau eta!"

AGENDA

BINGO SAIOAK

BINGO SAIOAK PAKE LEKUN

Irailaren 4an hasita, ostegunero (17:00) egongo da bingo saioa Pake Lekun. Hilaren 25ean saio berezia egingo da, sariekin. [Pake Lekun](#)

BINGO SAIOAK LAGUN LEKUN

Irailaren 2, 9, 16 eta 23an bingo saioak egingo dira (17:00-19:00). [Lagun Lekun](#)

ERAKUSKETAK

IRAILAK 22 - URRIAK 10

MARGO ERAKUSKETA

Irailaren 21ean egingo den aire libreko margo lehiaketan parte hartzen duten lanak egongo dira ikusgai. [Kultur etxean](#)

IRAILAK 28 - URRIAK 6

ARGAZKI ERAKUSKETA

'Oñati Begibistan' argazki erakusketa egongo da ikusgai. Jaien amaieran zozketatu egingo dira lan guztiak. [Foruen plazan](#)

HITZALDIAK

IRAILAK 27 / 10:30

'Gandiagaren Arantzazu'

Hizlaria: Paulo Agirrebalzategi. Prezioa, 5€. Plaza mugatuak. [Arantzazuko Asis Topagunea](#).

IKASTAROK

IRAILAK 16, 18, 23 eta 25

YOGA HASTAPEN IKASTAROA

Oñatiko Yoga Eskolak antolatuta, hasiberriei zuzendutako lau eguneko ikastaroa. Bi ordutegi aukeran: 9:30-11:00 eta 19:00-20:30. Izena emateko: yogaonati@gmail.com / 610953794. [Bidebarrieta kaleko 28an](#)

VERDIREN REQUIEMA, ARANTZAZUN IRAILAREN 13AN



Donostiako Orfeoia eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak parte hartuko dute, Columbus fundazioaren alde

Columbus Fundazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Laboral Kutxak antolatzen duten **RenHacer** jaialdiaren baitan, Giuseppe Verdiren 'Requiem' ederra entzuteko aukera egongo da Arantzazun, irailaren 13an, Donostiako Orfeoia eta Bilboko Orkestra Sinfonikoaren eskutik. Gaixotasun ultra-arraroak dituzten hurrei laguntzeko, entsegu klinikoak sustatu eta terapia genetikoetara sarbidea errazteko diru-funtsak biltzea da aurrean laugarrenez egingo den **RenHacer** jaialdi solidarioaren helburua. Sarrerak fundacioncolumbus.org atarian daude salgai.

'BULEGO' TALDEAREN KONTZERTUA



Azkoitian sortutako pop talde arrakastatsuen kontzertua emango du Oñatin **irailaren 26an**, Foruen plazan, 22:30etan. Urte amaieran 'Bulego'-k egingo duen etenaldia- ren aurretik (gutxienez, urtebetekoa izango omen da) eskainiko duen azken kontzertuetako bat izango da. Oñati jai giroan mugiltzeko aukera bikaina, zalantzarik gabe

INFORMAZIO SAIOAK

IRAILAK 23 / Goiz eta arratsalde

'HIRUKIDE'REN BULEGO IBILTARIA

Euskadiko kide ugarien familien elkarteen federazioa Oñatin egongo da Euskaldun Berria gelan (9:30-14:00 / 15:00-18:00) herriko familia ugariei informazioa emateko.

IKUSKIZUNAK

IRAILAK 18 / 20:00

ANTTON TELLERIAREN BAKARRIZKETA SAIOA

Burrunda faktoriak antola, *Ninini* izenburua duen bakarriketa saioa eskainiko du Antton Telleriak. [Antixena Gaztetxean](#)

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

PINTURAS

URBIA
MARGOAK

Ultzeqin kalea, 3 - Behea B / 652 710 837

JAIEEN ATARIKOAK



▲ Irailaren 12tik aurrera ikusgai egongo da jai egitarua udalaren webgunean, goiko QRa eskaneatuta

JAI EGITARUA

Irailaren 16an hasiko dira banatzen herriko etxe guztietara San Migel eta Errosarixo jaien egitarua. Azaleko irudia Lur Gesalaga Legorburu gaztearena da; berea izan zen udaleko kultura sailak antolatutako lehiaketara aurkeztutako 11 lanen artean bozkatuena, eta berak jaso du 500 euroko saria.

HAUR DANTZARIEN EGUNA

Irailaren 14an ospatuko da Oñatiko Haur Dantzarien eguna.

BERTSO JAIALDIA

Irailaren 19an bertso jaialdia egongo da (10€) Santa Ana aretoan 19:30etan.

MUS TXAPELKETA

Irailaren 20an jokatuko da herriko MUS txapelketa Portu plazan, 16:30etan.

HAURREN DANBORRADA

Irailaren 20an egingo da Haurren danborrada, Bidaurretan hasita, 18:00etan (Euria bada, irailaren 21ean izango da).

ENTSEGUAK: Irailaren 4, 8 eta 11n egingo dira ohiko entseguak, Eltzian (18:30-19:30). Entsegu orokorrak hilaren 15 eta 18an izango dira, ordu berean. Azken bi hauetarako gerrikoa eraman behar dute haurrek.

TXAKUR TXAPELKETA

Irailaren 21ean jokatuko da 65. Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa Santa Lutzian, 10:30.

MARGO LEHIAKETA

Irailaren 21ean jokatuko da Aire Libreko 20. lehiaketa, goizean zehar.

BOLAJOKUA ETA ARKUTIROA

Irailaren 21ean jokatuko da herriko bola-joko txapelketa San Martinen (15:30), eta egun berean egingo da arku tiro erakustaldia San Martin zuhaitzian, 17:00etan hasita.

ZINEA



Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Irailak 12 - 15

ZINE KLUBA:

NAGUSIAK:

ROMERIA

GAZTETXOAK:

LOS PITUFOS



Irailak 19 - 22

ZINE KLUBA:

NAGUSIAK:

JONE BATZUETAN

Film nazional onena

Mallorkako Film Fest-en

GAZTETXOAK:

HEIDI. KATAMOTZAREN ERRESKATEA



CIMASUB Tourra Oñatin, irailaren 4, 11 eta 18an

Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloak, CIMASUB TOURRA, Oñatira iritsiko da datozen asteetan. Hala, irailaren 4, 11 eta 18an pelikula bana ikusteko aukera egongo da kultur etxean, 19:00etan. Gainera, ARGAZKI erakusketa egongo da ikusgai irailaren 4tik 18ra, astelehenetik ostiralera (18:00-20:00) kultur etxean.

FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16

Irailak 5, 6, 7, 9, 11, 15, 17, 22 eta 23. Urriak 1 eta 2.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22

Irailak 9, 24, 25, 29 eta 30. Urriak 3.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58

Irailak 18, 26, 27, 28. Urriak 4, 5, 6 eta 7.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28

Irailak 4, 8, 10, 12, 13, 14, 16, 19, 20 eta 21. Urriak 8 eta 9.

ODOL ATERALDIA

IRAILAK 19 / 16:30-20:30

MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

BASERRIA erosi edo alokatu nahiko nuke: 620 710 109.

LAN ESKAINTZA Coinbroker-Oñati bulegoan pertsona baten bila gabiltza. Ez da ikasketa minimorik eskatzen, lanerako jarrera, oñatiarra izatea, euskaraz hitz egitea eta sektorean esperientzia izatea kontuan hartuko da. Bidali zure CVa: oinati@coinbroker.eus.

SITSA OPARI Ardi sitsa doan eskaintzan da Gomiztegi baserrian. Norberak joan behar du jasotzera 688 689 725.

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72



Dena daukazu prest eskolara itzultzeko?

Aurkitu zure motxilan falta ezin diren 6 elementuak.
Ikasmahia eta gainontzeko guztia:
Amuebladora Mondragonesa.